

Helduen euskalduntzean eragiten  
duten prozesu psikosozialak:  
***motibazio ezari aurre eginez***

HIZNET 02-03ko sakontze egitasmoa  
Egilea: **Josune Ortiz Atienza**

Bilbon, 2003ko ekaina-irailean

## 0. AURKIBIDEA

1. Aurkezpena .....	3
2. Helduen euskalduntzearen egungo egoera	
2.1. Euskararen Jarraipena III: euskararen egoera .....	4
2.2. Hainbat datu .....	9
2.3. Euskaltegiak-Eusko Jaurlaritza, gaur egun akordioa lortu ezinean .....	11
2.4. Motibazioaren rola .....	13
2.5. Motibazio ezaren faktore eragileak .....	15
3. Oinarri teorikoak: helduen euskalduntzean eragiten duten motibazioak eta motibazio ezak	
3.1. Txepetxen teoriaren ildotik: ikas prozesu kulturala .....	17
3.2. Ikas prozesua eta Gizarte prozesua .....	17
3.3. Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: sare soziala .....	18
3.4. Motibazio motak .....	19
4. Ikerketa enpirikoa	
4.1. Helburuak eta hipotesi praktikoa .....	22
4.1.1. Helburuak	
4.1.2. Hipotesi praktikokoak	
4.2. Lan metodologia .....	27
4.3. Analisia: alderaketak .....	29
5. Emaitzak	
5.1. a) alderaketa: Erabilera / Ezagutza / Helburuak / Motibazioak / Ikas-prozesua .....	30
5.2. b) alderaketa: motibazio ezaren faktore eragileak vs motibazioaren balizko eusleak .....	38
5.3. c) alderaketa: motibazioaren balizko eusleak vs motibazioaren benetako eusleak .....	40
6. Azken gogoetak .....	52
7. Bibliografia .....	54
8. Eranskinak: galdesortak eta inkestetako emaitzetan oinarritutako konponbideen taulak .....	56

# Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: *motibazio ezari aurre eginez*

## 1. AURKEZPENA

Menpeko hizkuntza gutxiagotuen normalizazioa lortuko bada, bi erronka nagusi daude: hizkuntzaren ezagutza bermatzea eta hizkuntzaren erabilera hedatzea. Nekane Arratibelek, Maria-Jose Azurmendik eta Iñaki Garciak euren “Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena” liburuan (2001) adierazitakoarekin bat eginez, zera esan beharra dago: gauza jakina da hizkuntzaren ezagutza bermatzeko bide eraginkorra hezkuntza-sistema dela; hala ere ezin dugu ahaztu populazioaren zati handi bat hezkuntza-sistematik at geratzen dela. Beraz, garrantzi handiko eremu ditugu helduen euskalduntzea eta bigarren hizkuntzen jabekuntza prozesua.

Lan xume honen helburu nagusia zera da: euskara ikasleen ikuspuntutik abiatuta, helduen euskalduntzearen hausnarketa egitea, egungo euskara ikasleen motibazio arazoei aurre egiteko konponbideak planteatzea eta batez ere, irakaskuntza bidezko euskararen transmisioari buruzko gogoetarako zenbait ildo eskaintzea.

Helburua azterketa soziologiko sakona egitea baino areago izango da hauen esperientzia eta proposamenei erreparatuz eta helduen euskalduntzean ikasleen beheranzko joera kontuan hartuz, honen bilakaeraren eta balizko konponbidetarako hausnarketa ildo batzuk planteatzea. Hau guztia euskara ikasle helduen ikuspuntutik, eta hauetxek subjektutzat hartuta.

Lana HIZNET ikastaroko sakontze egitasmoa dugu, eta Maria-Jose Azurmendiren tutoretzapean burututa dago.

## 2. HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN EGUNGO EGOERA


### 2.1 Euskararen Jarraipena III: euskararen egoera

Bost urtez behin egiten den inkesta honek, euskararen egoeraren erretratu orokorra ematen digu: aldagai soziodemografikoak, hiztunen hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren erabilera hainbat eremutan (familian, lan-muduan, bizitza publikoan..), eta hizkuntzari buruz diren jarrerak.

2001ean egindako *III. Soziolinguistikako Inkestak*, beraz, Euskal Herriaren gaur egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa sakona egitea du helburu, ondoko gaiei buruz dagoen informazioa egiaztatzeko:

- hizkuntza-gaitasunaren bilakaera;
- euskararen erabilera etxean, familiarik kanpoko gertuko komunitatean, lanean eta eremurik formalenetan;
- aldi berean, euskararen erabilera sustatzeko hartu beharreko neurriei buruz biztanleen interes eta jarreretan sakontzea;
- familia bidezko transmisioari buruzko diagnosia egitea eta euskaldun berrien analisia eta hizkuntza-jokabidea aztertzea.

Oraingoan, maila sinkronikoko informazioa emateaz gain, maila diakronikoan azken hamar urteotako hizkuntza-bilakaera ezagutu dezakegu, 1991ko eta 1996ko inkestetako datuekin alderatuz.




## Galera-irabaziak

Euskaldun berriena da fenomenorik azpimarragarriena, tokian tokiko hizkuntza gutxitua berreskuratze-ahaleginetan diharduten beste herrietan gertatzen ez dena. Euskal Autonomia Erkidegoan, 35 urtetik beherako biztanleen artean hartu duten eta hartzen ari diren pisua ikusirik, inolako zalantzarik gabe baieztatu daiteke euskaldungoaren izaera eta barne-egitura errotik ari direla aldatzen.

## Hizkuntza-gaitasuna

Euskal Herrian 1966a baino lehen jaiotakoen artean, elebidunak %22,2 ziren 1991n, elebidun hartzailleak %5,2 eta erdaldun elebakarrak %72,6. Hamar urte geroago, espero zitekeen moduan, kolektibo horren emaitzak oso antzekoak dira, %22,3, %7,9 eta % 69,7, hurrenez hurren.

1966 baino beranduago jaiotakoen artean, hots, egun 16 eta 35 urte bitartean dituztenetatik, ordea, elebidunek eta elebidun hartzailleek gora egin dute (%31,9 eta %16), batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan (%38,7 eta %18,8), milaka eta milaka gaztek euskara ikasi duelako. Egun 16 eta 24 urte bitartean dituzten gazteen emaitzak are positiboagoak dira: %39,6 eta %17,6 Euskal Herrian eta %48,5 eta %20,2 Euskal Autonomia Erkidegoan. Lurralde honetan euskararen aurrerapena garbia da: euskaldunen proportzioa gero eta handiagoa da, batez ere, gazteen artean.




Alabaina, Euskal Autonomia Erkidegoko irabazia erlatibizatu beharra dago. Egia da milaka eta milaka elebidun irabazten ari dela baina hori bezain egia da **irabazirik handiena erdaraz euskaraz baino errazago mintzo diren elebidunei zor zaiela nagusiki:**

- Egun, 35 urtetik gora dituztenen artean euskal elebidun funtzionalak, hots, euskaraz erdaraz baino errazago mintzo direnak biztanleria osoaren %8,7 dira, 16 eta 35 urte bitartekoetan, aldiz, %7,5, zertxobait gutxiago beraz.
- Elebidun funtzional orekatuak, euskaraz erdaraz bezalatsu hitz egiten dutenak, alegia, %6,6tik %10,4 izatera pasatu dira.
- Eta erdal elebidun funtzionalak, hau da, erdaraz euskaraz baino errazago mintzo direnak %9,5 izatetik %20,8 izatera pasatu dira.

## Erabilera

Gainerako adierazleekin gertatzen denaren antzera, **euskararen erabilera ere etengabe ari da behera egiten Ipar Euskal Herrian; ez gora, ez behera Nafarroan; eta gora Euskal Autonomia Erkidegoan.**

Joera nagusiak horiek dira ohiko erabilera-eremuetan (familian, lagunartean, esparru formal pribatuan eta publikoan, alegia) euskaraz erdaraz beste edo erdaraz baino gehiago mintzo direnei begiratzen zaienean. Alabaina, euskaraz, erdaraz baino gutxiago bada ere, mintzo direnei erreparatutakoan euskararen erabilera handitzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan ez ezik Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere.



Hori guztia egia da erabilerrari buruzko emaitzak biztanleria osoa kontuan hartuz aztertzen direnean (kontuan izan behar da irudiotan azaltzeke utzi ditugula %100 osatu bitartean falta direnak, hots, erdara hutsean bizi diren erdaldun elebakarrak).

Alabaina, biztanle guztiak hartzeko partez euskaraz mintzatzeko gai direnak bakarrik hartuz gero, ikus daiteke euskaraz erdaraz beste mintzo direnen proportzioak, Euskal Autonomia Erkidegoan bertan ere, behera egiten duela. Hori gertatzen da, aurreko atalean ikusi berri dugunez, **nabarmen gehitzen ari diren euskal hiztunak euskaldun berriak direlako, erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten dutelako eta, oraindik orain, euren harreman-sareetan euskaraz egiteko behar besteko euskaldunik ez dagoelako.** Azken batean, **euskaraz hitz egiteko behar besteko aukerarik ez dutelako,** dela duten erraztasun faltagatik dela noekin hitz egirik ez dutelako.

## Jarrerak

---

Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak, azken 10 urteotan, apenas izan du aldaketarik 1966a baino lehen jaiotakoen artean. Eta, gaur egun, adin-talde desberdinen arteko erkaketa eginez gero, hor ere, ez da azpimarratzeko moduko aldaketarik sumatzen:

- **Gehienak euskara sustatzearen aldeko dira** Euskal Autonomia Erkidegoan eta Iparraldean, azken lurralde honetan proportzioak zertxobait txikiagoak badira ere.
- **Nafarroan ordea, aurkakoak dira nagusi.** Baina ohartarazi behar da, gaur egun, aurkako jarrera hori duela hamar urte baino dezente txikiagoa dela.

Laburbilduz, askotariko egoera hori da etorkizuneko urratsak nondik nora egin erakusten diguna. **Tokian tokiko lehentasunak finkatzen asmatzean datza,** seguruenik, datozen urteotan, **euskarak atzera ala aurrera egitea.** Hortaz, bi eratakoak dira lurraldez lurraldeko epe motzeko helburuak eta lehentasunak:

- Batetik, **ahalik eta eperik laburrenean, euskararentzat ahalik eta hiztun oso gehien irabaztea** familia bidezko hizkuntza-transmisioaren bidez, eskolan euskara eta euskaraz ikasiz edota **heldu aroan euskara ikasteko aukerak eskainiz.**
- Bestetik, euskara eskolan ikasi duten milaka eta milaka euskal hiztunen hizkuntza-gaitasuna sendotzeak ere erabateko lehentasuna du.



## 2.2 Hainbat datu

Arestian aipatu bezala, euskara ikasleen beheranzko joera nabarmena da. Hona hemen azken 2000-2001 urteetako datuen alderaketa:

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Δ%
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	
<b>Guztira</b>									
Zentroak	121	100	15	100	58	100	48	100	-12,3
Ikasleak(1)	37.141	100	6.342	100	20.303	100	11.066	100	-11,2
Matrikulak	45.987	100	7.652	100	25.400	100	12.935	100	-11,2
Ikastorduak (mila)	10.074	100	1.685	100	5.667	100	2.723	100	-10,0
Talde orduak	915.549	100	152.162	100	496.167	100	267.220	100	-7,2
<b>Publikoak</b>									
Zentroak	40	33,1	1	6,7	21	36,2	18	37,5	0,0
Ikasleak(1)	10.101	27,2	239	3,8	5.517	27,2	4.353	39,3	-12,0
Matrikulak	10.802	23,5	285	3,7	5.921	23,3	4.596	35,5	-12,2
Ikastorduak (mila)	2.566	25,5	76	4,5	1.540	27,2	950	34,9	-11,8
Talde orduak	233.735	25,5	7.388	4,9	129.860	26,2	96.487	36,1	-5,6
<b>Homologatuak</b>									
Zentroak	70	57,9	13	86,7	32	55,2	25	52,1	2,9
Ikasleak(1)	26.287	69,6	6.057	95,4	14.372	69,4	6.331	56,6	-5,4
Matrikulak	33.777	73,4	7.312	95,6	18.633	73,4	7.832	60,5	-6,3
Ikastorduak (mila)	7.211	71,6	1.599	94,9	3.942	69,6	1.670	61,3	-5,1
Talde orduak	648.899	70,9	143.389	94,2	346.322	69,8	159.188	59,6	-1,7
<b>Libreak</b>									
Zentroak	11	9,1	1	6,7	5	8,6	5	10,4	-63,3
Ikasleak(1)	1.393	3,8	55	0,9	832	4,1	506	4,6	-58,7
Matrikulak	1.408	3,1	55	0,7	846	3,3	507	3,9	-59,0
Ikastorduak (mila)	298	3,0	10	0,6	185	3,3	103	3,8	-56,2
Talde orduak	32.915	3,6	1.385	0,9	19.985	4,0	11.545	4,3	-58,2

(1)Irakasmaila askotatik igarotzen den ikasle bat behin bakarrik zenbatzen da.  
Iturria: Hielduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE).

Helduen euskalduntze-alfabetatzean zeresanik duten erakunde gehienetatik (HABE dela, HPS dela, Hezkuntza Saila dela,...) honen aldaketarako beharra azpimarratzen da. HPStik sortutako Euskararen Aholku Batzordeak berak, 1998an argitaratutako Euskararen Biziberritzeko Plan Nagusian aipatutako Euskararen Ahulezien artean, Euskalduntze-Alfabetatzeari dagokion IV.4.11. puntuan, zera dio:

*“Hizkuntza bat ikastea neketsua da. Bestalde, euskalduntzearen eta alfabetatzearen emaitzak ez dira onak: hasten diren askok ez dute ikasturtea amaitzen; hurrengo urtean gutxiagok jarraitzen; oso gutxi erdiesten dute euskara-maila egokia. Horietako askok, gainera, ikasteari utzitakoan, euskaraz bizitzeko dituzten aukeren urritasunagatik, galdu egiten dute ikasitakoa.*

*Ez da beste euskaltegiekin eta hizkuntzak irakasten dituzten akademiekin ez harremanik eta ez irakasbideen konparaketarik ere. Euskaltegien mapa bera ere egiteke da oraindik, bakoitzak bere hazkundeari bakarrik begiratzen baitio.*

*Dirulaguntzen banaketan ere, nahiz eta gero eta txikiagoak izan, badaude oraindik desorekak eta aldeak. Zenbait euskaltegitan ere bada oraindik euskararen kaltetarako den ideologizatorik.*

*Alfabetatzearen eskaintza osotua zehaztu beharra dago, bai eta irakasleen prestakuntza areagotzeko beharra ere.”*

Ildo honetatik, erantzukizunik handiena euskaltegi eta barnetegi lepo uzten da.

Beste aldetik, helduen euskalduntze-alfabetatzearen dimentsio ekonomikoa eta bertan lan egiten duten langile kopurua ezagutzea ikuspegi orokorra osatzeari begira interesgarria izan daiteke. Beraz, hona hemen, Iparraldea izan ezik, Euskal Herriko gainontzeko lurraldeen egoera azaltzen duen taula.

EAE	Dimentsio ekonomikoa*	Langile kopurua
<b>Araba</b>	<b>743</b>	<b>300</b>
<b>Bizkaia</b>	<b>3.175</b>	<b>886</b>
<b>Gipuzkoa</b>	<b>2.044</b>	<b>599</b>
<b>Nafarroa (IKA soilik)</b>	<b>110</b>	<b>44</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.072</b>	<b>1.829</b>

Iturria: HABE, IKA

\* Kopuruak milioi pezetatan adierazita daude.

## 2.3 Euskaltegiak-Eusko Jaurlaritza, gaur egun akordioa lortu ezinean

Helduen euskalduntze-alfabetatzea sektorearen krisiarekin arduratuta, euskaltegien iraupena bermatuko luketen hainbat gairen inguruan eztabaidatu nahi du Eusko Jaurlaritzarekin Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskaltegi pribatu homologatuen %85 ordezkatzeko duen taldeak.

Hala ere, orain arte Jaurlaritzak finantzaketa publikora mugatu ditu bere proposamenak. Diru laguntzen alorrean ere desadostasunak nabarmenak dira.

### FINANTZAKETA

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru laguntzen alorrean dago euskaltegien eta Kultura Sailaren arteko desadostasunik handiena.

Orain arte, euskaltegiak izan dira diru laguntza publikoak jaso dituztenak, baina, hemendik aurrera, ikasleentzako beka sistema moduko bat indarrean jartzea da Jaurlaritzak proposatzen duena, beti ere «emaitza akademikoak aintzat hartuta».

Halaber, gehienez ere ikasleek kostu osoaren %50 jasoko lukete.

Euskaltegiak ez datoz bat proposamen horrekin. Besteak beste, beka sistemak «euskaltegien finantzaketa maila gutxitzea» ekarriko duelako. Gainera, negoziaketa hasi aurretik azaldu zuten, «gutxienez %10 handitu behar da euskaltegiarentzako diru laguntza publikoa sektorearen iraupena bermatzeko».

Era berean, beka sistemak euskaltegien finantzaketa «ikasleen lepotik» egitea ekarriko duela adierazi zuten, eta hori indarrean ipiniz gero, matrikulak garestiago ipini beharko dituztela gogoratu zuten.

### LAN BALDINTZAK

Helduen euskalduntze alfabetatzea sektorearen iraupena bermatzeko, langileen baldintzak hobetzea beharrezkoa dela uste dute euskaltegiek, eta hori finantzaketa publikoaren bitartez egin behar dela azpimarratu dute.

Irakaskuntza Pribatuko Lehen Hezkuntzako Hitzarmenarekin parekatu nahi dituzte euren baldintzak euskaltegiakoenak.

Kultura Sailak ez du bere iritzirik azaldu euskaltegiakoen irakasleen lan baldintzen inguruan.

## SUSTAPENA

---

Euskaltegiak arduratuta daude azken urteetan ikasle asko galdu dituztelako eta sektorearen iraupena arriskuan ikusten dutelako.

Horregatik, ikasleak euskaltegietara hurbiltzeko «sustapen kanpaina sendoa» egin behar dela diote, eta horren ardura Jaurlaritzak hartu behar duela agertu dute.

Bestalde, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea lantzeko beste lan sistema batzuk ipini behar direla diote euskaltegiek euren proposamenean: teknologia berriak erabiltzea, etorkinentzat ikastaroak...

Era berean, EGA baino exijentzia txikiagoa izango lukeen gaitasun agiria sortzea proposatu diote Jaurlaritzari.

Gai horiek guztiak ez dira eztabaidatu orain arte egindako bileretan.

## 2.4 Motibazioaren rola

Iñaki Martinez de Lunak euskaltegiek aurrera daramaten lanari buruz zera nabarmentzen du: euskaltegien jarduna baloratzeko erabiltzen den ia irizpide bakarra matrikulazioarena da. *“Matrikulazioa gorantz badoa, euskaltegien osasun onaren seinale da. Baina aldagai horren alde ahulak ere agerian geratzen dira:*

✓ *Matrikulatzen diren guztiak ikasle berriak ote? Behin eta berriz urratsak errepikatzen dituzten horietakoak? Edota ikastaroak eta urte sabatikoak amaierarik gabeko segidan tartekatzen dituztenak?*

✓ *Eta ikas prozesua bukatu orduko, frustrazioak garaituta, porrot egin eta euskara ikasteari uzten diotenen kopurua, non islatzen da?”*

Eta porrot honen haritik, hausnarketa bide hau proposatu digu: errealitate gordin horrek ez ote digu irakasten hizkuntza bateko hiztuna izatea hizkuntza eduki batzuk barneratzea baino askoz gehiago dela?

Motibazioa dugu hemen aipatu beharreko faktorea:

Javier Buronek "Motivación y aprendizaje" delako liburuan, motibazioari buruzko definizio hau eskaintzen digu:

*"Motibazioa helburu bat lortzera eramaten gaituena da, baina horretarako helburua egingarri ikusi behar dugu. Izan ere, itxaropenik, aukerarik gabe ez dago arrazoirik ahalegintzeko ezta saiatzeko ere, hau da, itxaropenik gabe ez dago motibaziorik."*

Motibazioak, beraz, gure adimena eta emozioak pizten ditu, eta horrek zerbait egitera eramaten gaitu helburu jakin batzuk lortzeko.

UEUko Helduen Euskalduntzearen V. Jardunaldietan Gloria Sanchez Santurtziko Euskaltegiko irakasleak esandakoaren arabera, argi dugunean zer egin nahi dugun eta nola lor dezakegun gure ahalegin guztiak ipintzen ditugu, nork bere erara, indarrak ondo neurtuz, arrakasta lortzeko.

Baldintza hauek ematen direnean gure kontzentrazioa oso sakona da, badakigu zer egin nahi dugun, badakigu ondo ala txarto egiten ari garen, porrota ez da kezkatzeko gaia, denbora oso arin pasatzen da, dena ateratzen zaigu erraz.

Baina, kezkatzen gaituzten ikasleek motibazioa galdu dute bidean, edo kanpoko motibazioa izanda, gogoz kontra hasi ziren ikasten. Argi dago ez dutela inolako erraztasunik sentitzen ikastean. Eta amore eman duen ikaslea gehiago ikasteko prest ez dagoen ikaslea da. Une horretara ailegatuta, pertsona horiek atsedena hartuko lukete gustura, baina gehienetan, inguruko errealitateak eraginda harrapatuta daude eta ezin diote euskara ikasteari utzi. Orduan gure geletan aurkitzen ditugu behartuta, etsita eta motibazioa erabat galduta, ikasteko ezinduak.

Jarraian, motibazio eza eragiten duten hainbat faktore aipatuko ditugu, beraz, aldez aurretik hona hemen euskara irakasleok motibazio eta desmotibazio hitzen bidez zer adierazi nahi dugun:

Motibatuta dagoen ikasleak ilusioa, gogoia agertzen du, parte hartzeko prest egoten da eta ahalik eta aukera gehienetan erabiltzen du euskara.

Desmotibatuta dagoenak, aldiz, gogo eza eta interes falta agertzen du, aspertuta egoten da, beti dabil kexuka,...

Baina zerk desmotibatzen ditu ikasleak? Nondik sortzen da motibazio eza?

## 2.5 Motibazio ezaren faktore eragileak:

### 1. IKASLE GUZTIEN NAHIAK ASETU EZINA

---

Euskaltegi edo barnetegira datozen ikasleen artean badira gramatika landu nahi dutenak, beste batzuek mintzatzea dute helburu. Ikasle bakoitzak helburu zehatz batzuk ditu, beraz, maiz programazioak ez ditu ikasle guztien nahiak asetzen. Programaziotan mintzamina, gramatika, idazmina, ulermena eta abar lantzen badira ere, sarri ez dator bat ikasleak eskatzen duenarekin ( edota dituen edo sortu dizkioten beharrek).

### 2. IKASLEEN GAITASUN EZBERDINAK:

---

Ikasle bakoitzak ikasteko erraztasun eta erritmo propioa dauka, beraz, batzuek aurrera jotzearekin batera, motelago doazenak atzerago geratzen dira. Honek batzuen eta besteen ezinegona dakar, baita motelen desmotibazioa ere.

### 3. IRAKASLEAREN PAPERA:

---

Irakaslearen jarrerak ikaslearen motibazioan eragin zuzena du, ikasleen erreferentea baita. Alde batetik, kontuan hartu beharra dago oso zaila dela hain jatorri desberdineko ikasle guztiarekin konektatzea, hortaz, gehienetan ikasleren bat (baliteke talde oso bat izatea ere) ez da guztiz ados egongo proposamen didaktiko eta metodologiarekin.

Bestetik, irakasleak berak bere motibazio propioa transmititzen die ikasleei jarrera, esandako eta egindako guztiaren bidez, eta honek ikasleak motiba zein desmotiba ditzake.

### 4. BANAKAKOA vs TALDEA:

---

Ikasleak bere taldean gustura eta integraturik egon behar du: zenbat eta gusturago egon taldean orduan eta baliagarriago egingo zaio ikastaroa. Tamalez ikaslea ez da beti gustura egoten bere taldean edota taldeak berak ez ditu maiz hainbat banakako onartzen.

### 5. IKASLEAREN INGURUNEA (SARE SOZIALA):

---

Ikaslearen lagunek, familiak, lanak, herriak, lanak, komunikabideek eta abarrek eragin zuzena dute. Ikasleak euskal ingurunea badu motibatuago egongo da, horrez gain euskaraz komunikatzeko behar handiagoa izango du. Erdal ingurunea daukanak, aldiz, ez du hainbeste premiarik ezta aukerarik ere izango.

## 6. IKAS-PROZESUA LUZEA IZATEA:

---

Izena ematera doanean ikasleari esaten zaio hiru bat urtetan euskara ikas dezakeela eta honek hasieran itxaropena eta ziurtasuna ematen badio ere, denborak aurrera egin ahala esandakoa ez dela errealia ikusten du. Hiru urte horiek oso urrun ikusten ditu, bai hainbat urrats errepikatu behar duelako bai prozesuan irregulartasunak (etendurak edota beharrezko feedbackak, kasu) ematen direlako.

Hau da, ez da etengabeko gorakadarik ikusten eta etsipena sortzen da.

## 7. ASTI FALTA:

---

Gaur egungo gizarteko erritmo arina dela medio, sortzen diren beharrak ikaslearen euskara ikasteko beharrari gailentzen zaizkio: lanak edota gainontzeko ikasketek lehentasuna hartzen dute.

## 8. KOMUNIKATZEKO EUSKARAREN BEHAR EZA:

---

Euskal Herriko egoera soziopolitikoa dela eta, ez dago euskara ikasi beharrik, gizartearen edozein egoeratan zein tokitan jendeak ez du komunikatzeko arazorik euskara jakin ez arren: indarrean dagoen konstituzioari jarraiki, denok dugu gaztelania jakiteko betebeharra, euskara jakitea, aldiz, eskubidea baino ez da. Are gehiago, arazoa euskara jakin eta erdaraz txarto moldatzen direnek daukate.



### **3. OINARRI TEORIKOAK: *HELDUEN EUSKALDUNTZEAN ERAGITEN DUTEN MOTIBAZIOAK ETA MOTIBAZIO EZAK***

#### **3.1 Txepetxen teoriaren ildotik: *Ikas-prozesu kulturala***

Hizkuntzen ikas-prozesua bikoitza da: alde batetik, ama-hizkuntza ikasteko prozesu naturala dago, lehen mailakoa; bestetik, bigarren mailako prozesu kulturala dago. Azken honen kasuan, hasierako motibazio batek ezagutza lortzeko aukera emango du, eta honen bidez erabilera helduko da.

Helduen euskalduntzea ikas-prozesu kulturala da, ikasleak modu konzientean erabakitzen baitu euskara ikastea. Prozesu honetan motibazioa da abiapuntua eta erabilera helmuga. Ikasleak erabileran nahikotasun-mailarik lortuko ez balu (prozesuan parte hartzen duten faktoreek –motibazioak, ezagutzak edota erabilerak- huts egin dutelako), hizkuntza arazoak sortuko lirateke.

#### **3.2 Ikas-prozesua eta Gizarte-prozesua**

Porrotarena azaltzeko Martínez de Lunak hipotesi hau proposatzen du: *Hizkuntzaren alderdi sozialean arretarik ez eskaintzean datza (porrota), euskaldundu nahi zuten euskaltzale zintzo askok huts egitea; (...) euskalduntzeak ikas prozesua ez ezik, gizarte prozesua ere hartzen du bere baitan.*

Aipatutako bi kontzeptuok honelaxe definitzen ditu: *ikas prozesua* hizkuntza edukiez jabetzea da; *gizarte prozesua*, ordea, hizkuntza komunitateko hiztunekin harremanetan aritzea, hizkuntza erabiltzea. Euskalduntzeak, beraz, bi arlo hauek lantzea suposatzen du Martínez de Lunaren ustez. Bietako batek huts eginez gero, porroterako aukerak ugaritu egiten dira. Gizarte prozesuak berarekin batera ekarriko lituzkeen zenbait aldaketa (euskarazko harremanak ez lirateke erdarazko berberak ez berdinak izango, adibidez) gertatu ezean, *baliteke ikas prozesua gizabanakoa zinez euskalduntzeko nahikoa ez izatea.*

Bi esparru hauen berezitasunak azpimarratzeko, koadro konparatibo bat proposatzen du. Guk hona alderaketa nabarmenenak dakartzagu:

<b>EZBERDINTASUN ARLOAK</b>	<b>IKAS PROZESUA</b>	<b>GIZARTE PROZESUA</b>
Ekintza-mota	<i>Euskara ikasi</i>	<i>Euskara erabili</i>
Helburuak	<i>Gaitasuna lortu</i>	<i>Hizkuntza komunitatean txertatu</i>
Kokapena	<i>Euskaltegia</i>	<i>Gizartea</i>
Ondorioak	<i>Ezagutza areagotu</i>	<i>Hizkuntza bizimoldez aldatu</i>

### **3.3 Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: sare soziala**

Aipatu beharra dago Nekane Arratibelek 1999an burutu zuen doktorego-tesian helduen euskalduntzean motibazioak duen rola aztertu zuela. Batik bat aldagai psikosozialak hartu zituen kontuan: sare sozialak, bizitasun etnolinguistikoa, identitate etnolinguistikoa, jarrerak eta motibazioa bera.

Euskara bigarren hizkuntza (2H) gisa ikasten zuten hainbat subjekturen laginetik abiatuta zera frogatu zuen:

Alde batetik eta prozesu psikosozialei dagokienez, zenbait ezaugarriak (jaioterriak, gurasoen lehen hizkuntzak eta hurbileko sare sozialaren ezagutzak eta erabilerak) eragin garrantzitsua dute subjektuaren euskararen erabileran. Aldi berean, sare sozialak subjektuaren azpiprozesu psikosozialetan eragingo du, beraz, subjektuarengan sarearen arabera identitate jakina, jarrera jakinak eta orientazio motibatzaile jakina garatuko dira. Azkenik, sare sozialak eta aldagai psikosozialek subjektuaren euskararen jabekuntzan eragingo dute.

Hortaz, sare sozialaren eszenatokian gertatutakoaren arabera, azpiprozesuak modu batera edo bestera gertatuko dira subjektua (euskara ikaslea) eta objektuaren (euskararen) arteko elkarrekintzan. Sare sozialak erdigunea betetzen baitu helduen euskalduntze prozesuan.

## 3.4 Motibazio motak

Hizkuntza bat ikastera bultza dezaketen arrazoiak era askotakoak izan daitezke eta elkarrekin nahasita ere eman daitezke. Definizio ugari eman zaizkio motibazioari (arestian Javier Buronena aipatu dugu). Agian hauxe litzateke simple eta orokorra: *gabezia edo estimulu baten aurrean gizakiak jarduera bati ekin eta eustearen prozesua*.

Gardnerren iritzirako (1985), ondorengo galderari lotu behar zaio motibazioaren kontzeptua: zergatik dihardu gizaki batek diharduen bezala? Gizakia motibatuta dagoela esatea arrazoiketa bikoitz batean du oinarri: batetik, gizaki horrek jomuga baterantz bideratutako jarduera du ageri eta, bestetik, jomuga horretarantz iristeagatik ari da ahaleginean.

Azalpen honi jarraiki, hiru osagai bereizten ditu motibazioaren baitan:

1. Jomugara iristeko ahalegina.
2. Desioa
3. Jomugara iristeko beharrezkoa den jardueraren aurreko jarrera.

Honen ildotik, hona hemen autore desberdinek planteatzen dituzten hainbat motibazio mota:

### MOTIBAZIO INSTRUMENTALA ETA MOTIBAZIO INTEGRATZAILEA

Gardnerrek eta Lambertek erabili zituzten lehenengoz kontzeptu hauek.

Hizkuntza ikaslearen helburua hizkuntzaren lortzeak eskaintzen duen baliorik materialeenaz jabetzea bada (norberaren lanbidean mailaz igotzea, kasu), motibazio instrumentalaz ari gara.

Nekane Arratibelek (1999) euskara ikasleen kasuan, honako bitan banatzen zela aurkitu zuen: LANERAKO MOTIBAZIO INSTRUMENTALA, lan munduarekin lotutako irabaziekin lotutakoa, eta bestetik, MOTIBAZIO INSTRUMENTAL PRAGMATIKOA, bestelako irabazi hautazkoagoekin lotutakoa.

Aldiz, ikasleak beste kultur komunitateaz gehiago jakin edota bertan integratu nahi duenean, horretan interesaturik dagoelako, motibazio integratzaileaz ari gara.

## **MOTIBAZIO KOMUNIKATZAILEA**

---

Hizkuntza ikasteko dagoen arrazoia komunikazio mailakoa baino ez da, beste hizkuntzako hiztunekin informazioa trukatu ahal izateko. Esaterako, bidaiak egiteko bertoko hizkuntza jakiteak bisitatzen ditugun beste kultur eta herrialdeetako hiztunekin komunikatzeko aukera eskaintzen digu, bai lehen mailako beharrak (jana eta edana lortzea, kasu) bai bigarren mailakoak (jendea eta bertoko ohiturak ezagutu ahal izatea).

Euskara ikasleei dagokienez, Arratibelek (1999) aurkitu zuen motibazio komunikatzailea ez dela bereziki gure testuinguruan agertzen, motibazio integratzailearekin batera agertzen baita. Honen arrazoia izan liteke beste bigarren hizkuntza batzuek atzerriko jendearekin komunikatzeko balio dutela baina euskarak ez duela gaitasun hori.

## **MOTIBAZIO ASIMILATZAILEA**

---

Haurtzaroan ematen da bizienik, urteak aurrera joan ahala ahuldu egiten baita. Adibide gisa AEBetako gaztetxo txikanoak jartzen dira. Euskal Herrian ere motibazio mota honen adibidea badugu: euskal azentuaz mintzatzea estigmatizat hartzen da, hortaz, horrela mintzatzen dena ezjakin hutsa dela pentsatzen da.

## **MOTIBAZIO MAKIABELIKOA**

---

Honen gainean Christiek eta Geisek egin zuten lan bereziki. Motibazio makiabelikoak eragindako ikaslea hizkuntza ikasten ari da beste lurraldeetan bere ideiak hedatzearren. Askok parekatzen dituzten motibazio makiabelikoa eta instrumentala.

## **TRANSMISIORAKO MOTIBAZIOA**

---

Arratibelek (1999) TRANSMISIORAKO MOTIBAZIOA ere aurkitu zuen: ikasleek euskara ikasten dutenean euren seme-alabei euskara transmititzeko eta beraiekin euskaraz komunikatu ahal izateko asmotan.

Urte askoko eskarmentuak eta hausnartutako emaitzek erakutsi digute gure ikasleengan nagusiki motibazio mota bik eragiten dutela: instrumentala eta integratzailea:

MOTIBAZIO INSTRUMENTALA duten ikasleek helburutzat oposizioa gaitzea dute, EGA edota Hizkuntza Eskolako agiria edota Hizkuntza Eskakizunen bat lortu nahi dute, euskara lanerako baino ez dute behar,...

MOTIBAZIO INTEGRATZAILEA duten ikasleek euskara ikasteko gogo bizia dute euskal gizartean integratzeko; komunikatzeko gai izateaz gain beraien burua euskaldundu nahi dute.

Munduan azterketa franko egin dira motibazio instrumental eta integratzailearen gainean, eta ondoriotariko askok motibazio integratzaileak eragindako ikasleek emaitza hobeak lortzen dituztela adierazten dute. Nolanahi ere, batzuetan bestelakoak ere eman ohi dira, izan ere nagusiki motibazio instrumentalaz gidatutako euskara ikasleek ere emaitza onak lortzen dituzte.

Jarraian, motibazio eza eragiten duten hainbat faktore aipatuko ditugu, beraz, aldeztatik hona hemen euskara irakasleek motibazio eta desmotibazio hitzen bidez zer adierazi nahi duten:

*Motibatuta dagoen ikasleak ilusioa, gogo agertzen du, parte hartzeko prest egoten da eta ahalik eta aukera gehienetan erabiltzen du euskara.*

*Desmotibatuta dagoenak, aldiz, gogo eza eta interes falta agertzen du, aspertuta egoten da, beti dabil kexuka,...*

## 4. IKERKETA ENPIRIKOA

### 4.1 HELBURUAK ETA HIPOTESI PRAKTIKOA

#### 4.1.1. HELBURUAK

Helduen euskalduntzearen azken datuon arabera, ikasle asko galdu ditugu azken urteetan. Datu benetan kezagarriak. Areago, oso ikasle gutxik bukatzen dute ikas-prozesua, gehienek prozesu erdian, hots nolabaiteko komunikazio eta ulermen maila lortutakoan uzten dute. Beraz, ikasle potentzialak (balizko euskaldunak) galtzeaz gain, baita errealak ere (jada euskalduntzen ari direnak) bidean geratzen zaizkigu.

Jakin badakigu kanpoko eragile askok eragina izan dutela zenbait ikaslek prozesua uzterako (lana, denbora eza, etab.). Baina kezkatzen gaituztenak eta egitasmo honen bultzatzaileak nolabaiteko barne eragileak dira. Beraz, ikasten jarraitu ahal izanik ere, ikas-prozesua etetea erabakitzen duten ikasleen motibazio arazoei erreparatuko diegu.

Urteetan zehar ikusi ahal izan dugu ikas-prozesua maila ertainetan eta kanpo eragileen eraginik gabe uzten duten ikasleen arrazoi nagusia MOTIBAZIO EZA dela. Hasten direnean oso animatuta daude eta ikasteko ilusioa dute, baina ikas-prozesua aurrera doan heinean, motibazioa galtzen dute: klaseetan aspertzen dira, ezintasuna sentitzen hasten dira,...batzuek motibazioa berreskuratu eta aurrera jarraitzen dute, gehienek, ordea, guztiz desanimatzearekin batera, bertan behera uzten dute prozesua.

Motibazio ezan eragin lezaketen faktoreak identifikatu eta hauen balizko konponbideak jarri ondoren, irakasleen konponbide hipotetikoak eta ikasleek eurek planteatutakoak alderatzean datza gure ikerketaren muina.

## 4.1.2. HIPOTESI PRAKTIKOAK

---

a) Irakasleen aburuz, gaur egungo ikasle gehienek euskara 2H gisa ikasteko duten **helburu nagusia** euren gaitasuna ziurtatuko duen **EGA edota antzeko egiaztagiria** lortzea da.

b) Helburu honekin bat datorren **motibazio instrumentalak gidatuta** mugitzen dira gehienbat, hots, egiaztagiria lortu nahi dute **lanerako** baliagarria delakoan, betiere irakasleen ustetan.

c) Behin helburua definituta, euskarazko ikas-prozesuan sartzen dira, eta honetan hainbat arazo sortzen zaizkie. Guri dagozkigunak arestiko 2. puntuan definitutako barne arazoak dira: motibazio ezaren faktore eragileak, hain zuzen. Eta hauekin lotuta hona hemen gure 3. hipotesia: **MOTIBAZIOAREN BALIZKO EUSLEAK**, hots, irakasleek motibazio ezaren aurrean eman ohi dituzten konponbideak.

Hauetxek irakasleen erantzunetan oinarritutako **IRAKASLEEN KONPONBIDEAK** izango dira.

## MOTIBAZIOAREN BALIZKO EUSLEAK: IRAKASLEEN KONPONBIDEAK

### Ikasle guztiok maila berean egotea

1. Mailaketa froga
2. Helburuak argi edukita, mailaz aldatu
3. Taldea banatu, ikasleak birkokatuz
4. Taldea mantendu eta moldatu gehienek behar dutenera

### Klaseko giroa

1. Talde dinamikak eta elkar ezagutzeko jokoak egin
2. Irakasleen esku: eurek distantziak markatu behar
3. Irakasleak prestatu horretarako
4. Arau zehatzak ezarri klasean

## **Metodologia**

---

1. Mintza/Entzu/Irak/Gramatika oreka mantendu
2. Irakaslearentzako ikastaroak
3. Ikasleen nahiei erantzun

## **Material didaktikoa**

---

1. Materiala mailaka ordenatu eta egoera naturaletara egokitu
2. Langileak liberatu materiala sortu eta berritzeko

## **Ordutegia betetzea (puntueltasuna)**

---

1. Zorrotzak izan: hurrengo ordura arte itxaronarazi
2. Ikasleei ulertarazi

## **Irakaslearen gaitasuna**

---

1. Nor bere kabuz ikasten saiatu
2. Ikastaroak egin
3. Ikas-prozesua optimizatu

## **Ikasleekiko harremana**

---

1. Errespetuan oinarritutako harremana mantendu, irakasle rola ahaztu gabe
2. Ekintza gehiago ikasleekin

## **Ikasleen arteko harremana**

---

Irakasleak dinamizatu eta bultzatu behar du, programazioan sartuz

## **Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko**

---

Kanpo-ekintza egokiak sustatu



## **Dinamismoa**

---

1. Monotoniarik gabeko ariketa dinamikoak planteatu eta animatu
2. Irakasleentzako ikastaroak
3. Klaseko erritmo ezberdinek elkar ez zapaltzen saiatu

## **Denbora ondo erabiltzea**

---

Programazio ona eta orekatua egin

## **Klasetik kanpoko ekintzak (ez dira oso beharrezkoak)**

---

1. Berezitasuna eta dinamismoa zaindu
2. Ikasleak parte hartzera bultzatu

## **Euskal kultura hobeto ezagutzea**

---

1. Kurrikulumean txertatu eta klaseratu
2. Euskal kulturaren erreferentia presente mantendu klasean

## **Emaitzak (lortutako maila, agiria)**

---

1. Irakasleek parte hartze handiago eduki azken emaitzetan
2. Mailaren arabera azterketa egokiak planteatu

d) Irakasleen konponbideak **ikasleez dituzten aurreiritzietan** (euren motibazioak, helburuak, ohiturak, ikasteko baloratzen dutena,...) oinarrituta daude. Hauetxek **batzuetan betetzen dira, besteetan ez.**

e) **Irakasleek planteatutako konponbideek (MOTIBAZIOAREN BALIZKO EUSLEAK) eta ikasleek planteatutako benetako konponbideek (MOTIBAZIOAREN BENETAKO EUSLEAK) askotan ez dute bat egiten,** hots, irakasleak aurreiritzietan oinarritzen dira, beste hainbat elementu kontuan hartu barik. Beraz, gehienetan ez dituzte ikasleak kontuan hartzen euren motibazio ezari aurre egiten laguntzeko.

f) Beraz, eta azken hipotesi gisa, ondoriozta dezakegu gaur egungo euskara ikasle helduen motibazio arazoei ez diegunez behar bezalako konponbidea ematen, **gero eta ikasle desmotibatuagoak** heltzen zaizkigula eskoletara.

## 4.2 LAN METODOLOGIA

Bi lagin erabili ditugu:

Bata, euskara ikasleek osatua. Bizkaiko barnetegi batean udako ikastaroetan eta maila ertainetan dauden 6.,7.,8. eta 9. mailako 53 ikasle, batzaz beste 34 urtekoak. Gehienak emakumeak dira, Bilbon jaioak eta Bilbon dute bizilekua, beraz, gune soziolinguistiko erdaldunekoak dira. Goi Ikasketak egin dituzte, erdaraz gehienbat, eta lanean daude, irakaskuntzan edo administrazioan oro har.

Ikasleekin galdetegi erdi-itxia erabili da, galdera itxiak izan arren, hainbatetan iradokizunetarako aukera eman baita. Galderok honako informazioa lortze aldera bideratuta daude:

- norberaren eskarmentua
- euskara ikasteko norberaren helburu eta motibazioak
- metodologiaz duen iritzia
- helburua lortzeko epea
- beste ikasleengan sumatutakoa
- lehengo eta gaurko irakasleengan sumatutakoa
- ikas-prozesuan izan dituen arazoak eta ikusitako hutsuneak
- balizko konponbideak
- hauen ardura nori egokitu
- norberak egin edo aldatu beharrekoa
- bestelako ekarpenak

Bestea, euskara irakasleek osatua. Bizkaiko barnetegi batean lanean diharduten 11 irakasle dira, gehienak Bizkaiko emakumeak eta batzaz beste 35 urtekoak.

Irakasleekin galdetegi erdi-irekia erabili da, ikasleentzako galdetegian oinarritutakoa. Lehenengo eta behin eskatu zaie ikasle prototipoa eta bere helburu, asmoak eta abarrak definitzea. Azkenik, ikasle prototipoa alde batera utzita, arazoan balizko konponbideak aipatu behar izan dituzte. Hona hemen galderak zer nolako informazioa lortzeko bideratuta egon diren:

- irakaslearen eskarmentua
- euskara ikasteko ikasle ereduaren helburu eta motibazioak
- ikasle ereduak metodologiaz duen iritzia
- ikasle ereduak helburua lortzeko epea
- ikasle ereduak beste ikasleengan sumatutakoa
- ikasle ereduak lehenengo eta gaurko irakasleengan sumatutakoa
- ikasle ereduak ikas-prozesuan izan dituen arazoak eta ikusitako hutsuneak
- irakaslearen benetako eta balizko konponbideak
- hauen ardura nori egokitu
- norberak egin edo aldatu beharrekoa
- bestelako ekarpenak

Esperientzia eta iritzi bilketa banakako inkesten bidez gorpuztu da. Honen ostean inkesten alderatzeari ekin diogu.

## 4.3 ANALISIAK: ALDERAKETAK

Datu guztiak bildu ondoren, grafiko eta diagrametara ekarri ditugu, elkarrekin alderatu ahal izateko. Honako prozesua jarraitu dugu:

### a) Erabilera / Ezagutza / Helburuak / Motibazioak / Ikas-prozesua

Gai hauei buruzko informazioari dagokionez, ikasle eta irakasleen inkestetako datuak erkatu ditugu. Honen helburua irakasleen aurreiritzietatik zeintzuk betetzen diren frogatzea da. Hainbat datu geroko konponbideen azterketarako ere erabilgarri izan dira.

### b) Arazoen konponbideak

Aldez aurretik definitutako *Motibazio ezaren faktore eragileak*, *Motibazioaren balizko eusleekin* (hau da, irakasleen konponbideekin eta inkestetan planteatutako arazoekin) elkartu ditugu: faktore bakoitza arazo batek baino gehiagok sortzen du.

### c) Gure hipotesiko *Motibazioaren balizko eusleak* (irakasleen inkestetako konponbideak) eta ikasleek eskainitako arazoen aurreko konponbideak alderatu ditugu:

c.1) **Ez badute bat egin**, horrek esan nahi du hipotesiarekin asmatu dugula, hau da, **irakasleek eta ikasleek** planteatutako balizko **konponbideek askotan ez dutela bat egiten**, hots, irakasleak aurreiritzietan oinarritzen direla.

c.2) **Bat egin badute**, horrek gure hipotesia hankamotz dagoela adierazi du. Beraz, **irakasleek ikasleek dituzten aurreiritziek eta errealitateak bat egiten dutenez**, prototipo egokia osatu eta horretan oinarritutako ikas-prozesuko arazoei aurre egiteko konponbide egokiak planteatzen dituzte.

## 5. EMAITZAK


### 5.1 a) alderaketa: ERABILERA /EZAGUTZA / HELBURUAK / MOTIBAZIOAK / IKAS-PROZESUA

Lehenengo eta behin esan beharra dago ikasleen soslaiak eta irakasleek definitutako ikasle prototipoak erabat egiten dutela bat: 34 urteko emakume bizkaitarra (gehienbat Bilbo eta Ezkerraldekoa), Goi mailako Ikasketak eta lana duena.


### EZAGUTZA

Ikasleen mintzamena, irakurmena eta idazmen gaitasunei dagokienez, irakasleek ezagutza txikiagoa esleitzen diete ikasleei: irakasleen %37,5ek ikasleek irakurmenean maila handia daukatela pentsatzen du, ikasleen %60,5en aurrean. Edota mintzamenean irakasleen %25ek baino ez dituzte ikasleen ezagutza nahikotzat hartzen, aldiz, ikasleen kopuru handiagok (%35ek hain zuzen, euskal hiztun trebetzat du bere burua.

ikasleen ezagutza




ikasleen ezagutza (irakasleen iritziz)




Ikasleen ingurunearen ezagutzari buruz, irakasleek pentsatzen dute ikasleen bikoteek eta lankideek benetan dakitena baino euskara gutxiago dakitela. Esate baterako, lankideen %38,2k ezagutza handia dute, irakasleen iritzirako, kopuru hau %50era igotzen da.

Aldiz, ikasleen familia hurbilagoa osatzen duten seme-alabek ezagutza handiagoa dutela uste dute: seme-alaben %20k ezagutza handia duten bitartean, irakasleek uste dute %75 dela.

familia/lagunartea/lan-giroa ezagutza




familia/lagunartea/lan-giroa ezagutza (irakasleen iritziz)




## ERABILERA

Ikasleen erabilera hizpide izanik, irakasleek uste dutena eta ikasleen benetako erabilera nahiko antzekoa da, salbuespenak salbuespen, oro har eskasa edo hutsaren hurrengoa:

ikasleen erabilera



ikasleen erabilera (irakasleen iritziz)




Ikasleen ingurunea oro har erdalduna da. Lankideen artean ematen da erabilerarik altuena: lankideen %30,4k erabilera altua du, guraso eta bikotearen %4,3ren aldean.


Ikaslearen ingurunerik intimoena osatzen duten guraso, neba-arreba eta bikote gehienak ez dira euskaldunak.

Aldiz, seme-alaben eta lagunaren artean erabilera handitzen da: seme-alaben % 67k euskara gutxi gorabehera denbora erdian erabiltzen du, baita lagunaren %53,2k ere.

familia/lagunartea/lan-giroa erabilera



familia/lagunartea/lan-giroa erabilera (irakasleen iritziz)









## HELBURUAK ETA HAUEK LORTZEKO USTEZKO EPEA

Ikasleek euskarari dagokionez duten helburu nagusia EGA edo antzeko egiaztagiriren bat lortzea da, %36k honen alde egin dute, hain zuen. Baina ia-ia helburu honen parean mintzamenean hobetzea dago, %31ren helburu nagusia hauxe baita.

Irakasleen artean ere antzeko emaitzak lortu dira: irakasleen % 45,4ren ustetan, ikasleek EGA lortzeko helburu nagusia dute, aldiz, % 36,4k mintzamenean hobetzeko helburua dakusate euren ikasleengan. Beraz, irakasle gehienek pentsatzen dute ikasleek euskara ikasten dutela egiaztagiria lortzeko asmotan. Are gehiago, ikasleek eurek baino irakasleen kopuru handiagok uste du hori.




Eta helburua lortzeko epeaz galdetuta, ikasle gehienek, %44k hain zuzen, urte bat edo bi beharko dituztela pentsatzen dute. Irakasleek jarritako epea luzeagoa da, ikasleek euren helburua lortzeko buruan hiru edo lau urte dituztela pentsatzen baitute.




## MOTIBAZIOAK

Ikasleen %45ek euskara ikasten dute lanerako erabilgarria izateaz gain, hemen euskara jakitea garrantzitsua dela uste dutelako. Bestalde, irakasleen iritzirako, ikasle gehienek motibazioa lana lortzea da, %62k haxe erantzun baitute.

euskara ikasteko motibazioak




euskara ikasteko motibazioak (irakasleen iritziz)




Eguneroko jardura ezberdinak euskaraz egiteak edo behintzat egin ahal izateak eurentzat duen garrantziak galdetuta, ikasleek gehien baloratzen dutena inguruko euskaldunekin euskaraz aritzea da. Bigarrenik, irratia edo telebista euskaraz ikusi-entzutea, eta hirugarrenik oro har euskaraz irakurtzea.

Irakasleek horixe berori uste dute ikasleek.

garrantzia: egunerokoak euskaraz



garrantzia: egunerokoak euskaraz (irakasleen iritziz)



## IKAS-PROZESUA: BALORAZIOA ETA ARAZOAK

Hona hemen ikas-prozesuan ematen diren hainbat faktoreren ikasleen sailkapena, baloratuenetik balore gutxien duenera:

1. Klaseko giroa
2. Irakaslearen gaitasuna
3. Metodologia /  
Dinamismoa
4. Denbora ondo erabiltzea
5. Ikasle guztiok maila berean egotea
6. Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko
7. Ikaskideekiko harremana
8. Irakaslearekiko harremana
9. Material didaktikoa
10. Emaidzak (lortutako maila, agiria)
11. Ordutegia betetzea (puntueltasuna)
12. Klasetik kanpoko ekintzak
13. Euskal kultura hobeto ezagutzea
14. Etxerako lanak edukitzea

Hona hemen irakasleek ikasle prototipoak emango lituzkeen erantzunetan oinarrituta egindako sailkapena:

1. Emaidzak (lortutako maila, agiria)
2. Irakaslearen gaitasuna /  
Denbora ondo erabiltzea
3. Dinamismoa
4. Material didaktikoa /  
Ikaskideekiko harremana
5. Irakaslearekiko harremana
6. Metodologia
7. Ikasle guztiok maila berean egotea /  
Klaseko giroa
8. Ordutegia betetzea (puntueltasuna)
9. Klasetik kanpoko ekintzak
10. Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko
11. Euskal kultura hobeto ezagutzea
12. Etxerako lanak edukitzea

Zerrendon argipean, zera ondoriozta dezakegu: **ikasleentzat** ikas-prozesuan garrantzi gehien duten

1. **lehenengo** faktorea **KLASEKO GIROA** eta
2. **bigarrena** **IRAKASLEAREN GAITASUNA** dira,

eta ikasleez pentsatzen dutena oinarritzat hartuta, **irakasleek**

1. **lehenengo** faktoretzat **EMAITZAK** (lortutako agiria, maila) eta
2. **bigarrentzat** **IRAKASLEAREN GAITASUNA** eta **DENBORA ONDO ERABILTZEA** dute.

Horretaz gain, **ikasleek**, irakasleek pentsatzen dutena baino **garrantzi gehiago** ematen diote

METODOLOGIari,  
KLASEKO GIROari  
edota EUSKARA ERABILTZEKO LAGUN TALDEA SORTZEari.

Eta aldi berean, ikasleek irakasleek pentsatzen dutena baino **garrantzi gutxiago** ematen diete

EMAITZEi  
IKASKIDE ETA IRAKASLEAREKIKO HARREMANEi  
edota MATERIALari.

Azkenik, **bai ikasleentzat bai irakasleentzat** (ikasle prototipoaz galdetuta) **garrantzi gutxien** duten faktoreak honako hauek dira;

ETXERAKO LANAK EDUKITZEA  
EUSKAL KULTURA HOBETO EZAGUTZEA eta  
KLASETIK KANPOKO EKINTZAK

## ONDORIOAK

Aurreko datu guztiak laburbilduz eta nolabait ondorio gisa, esan genezake **irakasleek euren ikasleei honakoa irizten dietela:**

- Euren pentsatutakoa baino ezagutza txikiagoa dute,
- Euren bikote eta lankideen ezagutza txikiagoa izanik ere, seme-alabena benetan dena baino handiagoa da,
- Erabilera eskasa dute eta euren famili eta gizarte sarearen erabilera benetan ematen dena baino handiagoa da,
- Ikasleen helburua EGA edota antzeko egiaztagiriren bat lortzea da, baina haxe berau lortzeko epea ikasleek aurreikusten dutena baino luzeagoa (3-4 urtekoa),
- Motibazioetan ere desberdintasunak egon dira: irakasleen aburuz LANERAKO MOTIBAZIO INSTRUMENTALA nagusitzen da. Aldiz, ikasleek lanerako erabilgarritzat jotzeaz gain, Euskal Herrian euskara jakitea garrantzitsua dela pentsatzen dute, beraz LANERAKO MOTIBAZIO INSTRUMENTALAK eta baita MOTIBAZIO INTEGRATZAILEAK ere eraginda ari dira euskara ikasten,
- Eguneroko jardun garrantzitsuenetan irakasleak bat datoz ikasleekin: inguruko euskaldunekin euskaraz aritzea eta irratia edota telebista entzutea,
- Eta azkenik, ikastaroko faktoreen balorazioetan ere aldeak egon dira: irakasleek uste dute ikasleentzat baloratuena lortutako emaitza dela (lortutako agiria, maila) eta ikasleek, ostera, klaseko giroari ematen diote garrantzi gehien.

Ondoriok hipotesi praktikoekin alderatuta, zera ikus dezakegu:

- a) Ikasleen helburu nagusiak bi dira: EGA edota antzeko egiaztagiria lortzea eta Euskal Herriko hizkuntza ikastea. Beraz, **a) hipotesia betetzen da.**
- b) Ikasleengan Lanerako motibazio instrumentala eta Motibazio integratzailea antzeko mailan ematen dira. Beraz, **b) hipotesia erdizka baino ez da betetzen.**

**5.2 b) alderaketa:**  
**MOTIBAZIO EZAREN FAKTORE ERAGILEAK VS**  
**MOTIBAZIOAREN BALIZKO EUSLEAK**

**1. IKASLE GUZTIEN NAHIAK ASETU EZINA**

izeneko faktorea inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Metodologia ezegokia
- Euskara erabiltzeko lagun taldea ez sortzea
- Ikaskideekiko harreman txarra
- Espero diren emaitzak (agiriak) ez lortzea

**2. IKASLEEN GAITASUN EZBERDINAK**

izeneko faktorea inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Ikasle guztiak maila berean ez egotea
- Denbora ondo erabiltzen ez den sentazioa

**3. IRAKASLEAREN PAPERA**

izeneko faktorea inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Irakaslearen gaitasun eza
- Dinamismo eza
- Irakaslearekiko harreman txarra
- Material didaktiko desegokia

**4. BANAKAKOA vs TALDEA**

izeneko faktorea inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Klaseko giro txarra
- Ikasleekiko harreman txarra
- Euskara erabiltzeko lagun talderik ez sortzea

## **5. IKASLEAREN INGURUNEA**

---

izeneko faktorea inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Euskara erabiltzeko lagun talderik ez sortzea
- Klasetik kanpoko ekintza ez erakargarriak
- Euskal kultura ez ezagutzea

## **6. IKAS-PROZESUA LUZEA IZATEA**

---

izeneko faktorea inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Epea aldez aurretik pentsatutakoa baino luzeagoa
- Emaizarik (agiririk) ez lortzea

## **7. ASTI FALTA**

---

izeneko faktorea inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Denbora luzea behar izatea ikas-prozesu osoa burutzeko
- Euskaraz komunikatzeko behar eza

## **8. KOMUNIKATZEKO EUSKARAREN BEHAR EZA**

---

izeneko faktorea inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Erdal ingurunean bizitzea
- Euskal kultura ez ezagutzea
- Euskara erabiltzeko lagun talderik ez sortzea

**5.3 c) alderaketa:**

**MOTIBAZIOAREN BALIZKO EUSLEAK ETA BENETAKO EUSLEAK:  
IRAKASLEEN ETA IKASLEEN KONPONBIDEEN ALDERAKETA**

*Inkestetako erantzunetako konponbideetan eta euskalduntzearen egoeran definitutako Motibazio ezaren faktore eragileetan oinarrituta, hona hemen irakasleek eta ikasleek azaldutako konponbideon alderaketa (hau da, MOTIBAZIOAREN BALIZKO EUSLEEN eta BENETAKO EUSLEEN artekoa):*

*(Kolorez agertzen diren konponbideak zutabe bakar batean agertzen dira; beraz, dela irakasleek (urdin argiaz) dela ikasleek (hori argiaz) aipatutako konponbideok ez dute antzeko planteamendurik ondoko zutabeen).*

**1. IKASLE GUZTIEN NAHIAK ASETU EZINA**

Faktore eragile hau inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Metodologia ezegokia
- Euskara erabiltzeko lagun taldea ez sortzea
- Ikaskideekiko harreman txarra
- Espero diren emaitzak (agiriak) ez lortzea

<b>IRAKASLEEN KONPONBIDEAK</b>	<b>IKASLEEN KONPONBIDEAK</b>
<p><b>Metodologia</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mintza/Entzu/Irak/Gramatika oreka mantendu</li> <li>2. Irakaslearentzako ikastaroak</li> <li>3. Ikasleen nahiei erantzun</li> </ol>	<p><b>Metodologia</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Testu-liburua eduki, gramatika azalpen eta ariketekin. Azalpen gehiago, astiroago eta ordenatuago</li> <li>2. Irakasle trebatuak: metodologia eta pedagogia ikastaroak egin</li> <li>3. Oreka irakaslearen metodologia eta ikasleen eskaeren artean</li> <li>4. Euskal giroa sortu</li> </ol>
<p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b></p> <p>Kanpo-ekintza egokiak sustatu</p>	<p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b></p> <p>Klasekoen artean hitz egin mintza-taldea sortzen saiatzeko, astean behin edo biltzeko</p>



<p><b>Ikasleen arteko harremana</b> Irakasleak dinamizatu eta bultzatu behar du, harremanen lanketa programazioan sartuz</p>	<p><b>Ikaskideekiko harremana</b></p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Denon artean hitz egin</li><li>2. Kanpo-ekintzak antolatu (poteoak, afariak) harremanak sakontzeko</li><li>3. Pazientzia eta umore ona eduki, ez onartu inork tratu berezia jasotzea</li><li>4. Talde homogeneoak</li></ol>
<p><b>Emaitzak (lortutako maila, agiria)</b></p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Irakasleek parte hartze handiago eduki azken emaitzetan</li><li>2. Mailaren araberako azterketa egokiak planteatu</li></ol>	<p><b>Emaitzak (lortutako maila, agiria)</b></p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Gehiago ikasi</li><li>2. Azterketak prestatzeko ikastaroak, ikastaroetakoak ez baitu balio</li><li>3. Akatsak zuzendu</li><li>4. Azterketak aldatu, ez baitira baliagarriak</li></ol>

Irakasleak metodologia orekatuaren aldekoak diren bitartean, ikasleek gramatika azalpen gehiago eta hobeak eskatzen dituzte, testu-liburu egokiaz lagunduta. Horrez gain, ikasleek harremanak batez ere klasetik kanpo landu behar direla uste dute; irakasleak, aldiz, klase barruan programazioarekin uztatzearen alde daude.

Biek gaurko azterketa-ereduei ezegoki irizten diete, eta moldatu beharko liratekeela pentsatzen dute.

## 2. IKASLEEN GAITASUN EZBERDINAK

Faktore eragile hau inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Ikasle guztiak maila berean ez egotea
- Denbora ondo erabiltzen ez den sentrazioa

IRAKASLEEN KONPONBIDEAK	IKASLEEN KONPONBIDEAK
<p><b>Ikasle guztiok maila berean egotea</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mailaketa froga</li> <li>2. Helburuak argi edukita, taldea banatu, ikasleak birkokatuz</li> <li>3. Taldea mantendu eta moldatu gehienek behar dutenera</li> </ol>	<p><b>Ikasle guztiok maila berean egotea</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastaroa hasi baino lehen frogak egin</li> <li>2. Ikastaroa hasita, maila desberdineko ikasleak klasez aldatu</li> <li>3. Talde txikiagoak eta irakasle gehiago</li> </ol>
<p><b>Denbora ondo erabiltzea</b></p> <p>Programazio ona eta orekatua egin</p>	<p><b>Denbora ondo erabiltzea</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Denon artean hitz egin denbora hobeto aprobetxatzeko</li> <li>2. Irakasleak ondo programatu: ariketak egiteko denbora justua eman</li> </ol>

Biek pentsatzen dute mailaketa frogak ezinbestekoak direla. Ikasleen artean maila desberdinekoak baleude, irakasleen iritzia banatzen da: batzuen ustez taldeak mantendu eta gehienek beharretara moldatu beharra dago, besteen ustez (eta azken hauek ikasleekin bat egiten dute) taldeak banatu eta ikasle bakoitza bere mailan kokatu behar da.

Honi ikasleek gehitzen diote talde txikiagoen eta irakasle gehiagoren beharra.

Ondo programatzeaz gain, arazorik balego denon artean hitz egin beharko litzateke, ikasleen aburuz.

### 3. IRAKASLEAREN PAPERA

Faktore eragile hau inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Irakaslearen gaitasun eza
- Dinamismo eza
- Irakaslearekiko harreman txarra
- Material didaktiko desegokia

IRAKASLEEN KONPONBIDEAK	IKASLEEN KONPONBIDEAK
<p><b>Irakaslearen gaitasuna</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Nor bere kabuz ikasten saiatu</li> <li>2. Ikastaroak egin</li> <li>3. Ikas-prozesua optimizatu</li> </ol> <p><b>Dinamismoa</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Monotoniarik gabeko ariketa dinamikoak planteatu eta animatu</li> <li>2. Irakasleentzako ikastaroak</li> <li>3. Klaseko erritmo ezberdinek elkar ez zapaltzen saiatu</li> </ol> <p><b>Ikasleekiko harremana</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Errespetuan oinarritutako harreman ona mantendu, irakasle rola ahaztu gabe</li> <li>2. Ekintza gehiago ikasleekin</li> </ol> <p><b>Material didaktikoa</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Materiala mailaka ordenatu eta egoera naturaletara egokitu</li> <li>2. Langileak liberatu materiala sortu eta berritzeko</li> </ol>	<p><b>Irakaslearen gaitasuna</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Kexa jarri</li> <li>2. Klasez aldatu eta bestela, euskaltegiz aldatu</li> <li>3. Irakasleak komunikatzeko gaitasuna eta motibazioa eduki eta bere lana maitatu</li> <li>4. Irakasleak trebatzeko ikastaroak egin, beste irakasleengandik ikasi,...</li> <li>5. Irakaslearekin hitz egin</li> </ol> <p><b>Dinamismoa</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Joko eta ekintza dibertigarri gehiago, umore onean</li> <li>2. Irakasleak teknikak ikasi</li> <li>3. Teoria eta praktika orekatuago egon behar</li> </ol> <p><b>Irakaslearekiko harremana</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Irakaslearekin hitz egin</li> <li>2. Ikasleek beldurra kendu eta konfiantzazko giroan zalantza guztiak galdetu</li> <li>3. Irakaslez aldatu</li> <li>4. Paso egitea</li> </ol> <p><b>Material didaktikoa</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Testu-liburu eguneratua, modernoa eta ondo programatua</li> <li>2. Metodo berriak (interaktiboak: ordenagailua, internet) bultzatu</li> </ol>

Ikasle gehienek uste dute irakasleak bere lana egiteko motibatuta egon behar duela, komunikaziorako gaitasuna izateaz gain. Konfiantza sortzen saiatu behar du giro ona egon dadin.

Irakasleen iritziz, berriz, irakasleak ikasleekin harreman ona edukitzen saiatu behar du, baina gehiegi inplikatu barik, batez ere ikas-prozesuaz arduratu behar baitu.

Irakasleek didaktika, metodologia, talde-dinamika,... ikastaroak egin beharko lituzkete, bai ikasle bai irakasleen aburuz. Eta iritzi honi irakasleek euren ikasteko liberazioen beharra azpimarratzen dute.

Ikasleek euren aldetik metodo berrien (teknologia berriez uztartuta) sustapenaren beharra aipatzen dute.

Irakaslea ez badute gustukoa, ikasle askok kexa jarri edota klasez eta euskaltegiz aldatuko liratekeela aipatu dute.

#### 4. BANAKAKOA vs TALDEA

Faktore eragile hau inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Klaseko giro txarra
- Ikasleekiko harreman txarra
- Euskara erabiltzeko lagun talderik ez sortzea

IRAKASLEEN KONPONBIDEAK	IKASLEEN KONPONBIDEAK
<p><b>Klaseko giroa</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Talde dinamikak eta elkar ezagutzeko jokoak egin</li> <li>2. Ikasleen esku: eurek distantziak markatu behar</li> <li>3. Irakasleak prestatu horretarako</li> <li>4. Arau zehatzak ezarri klasean</li> </ol>	<p><b>Klaseko giroa</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Denon artean hitz egin eta kausak aztertu</li> <li>2. Irakasleak motibazio eta dinamismo handiago eduki behar</li> <li>3. Ikasleak moldagarriagoak izan eta ekintza gehiago elkarrekin</li> </ol>
<p><b>Ikasleen arteko harremana</b></p> <p>Irakasleak dinamizatu eta bultzatu behar du, programazioan sartuz</p>	<p><b>Ikaskideekiko harremana</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Denon artean hitz egin</li> <li>2. Kanpo-ekintzak antolatu (poteoak, afariak) harremanak sakontzeko</li> <li>3. Pazientzia eta umore ona eduki, ez onartu inork tratu berezia jasotzea</li> <li>4. Talde homogeenak</li> </ol>
<p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b></p> <p>Kanpo-ekintza egokiak sustatu</p>	<p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b></p> <p>Klasekoen artean hitz egin mintza-taldea sortzen saiatzeko</p>

Biek beharrezkotzat jotzen dituzte elkar ezagutzeko talde dinamikak eta uste dute hein handi batean ikasleen esku dagoela harreman onak izatea; baina ikasleek harremanak batez ere klasetik kanpo landu behar direla uste dute; irakasleek, aldiz, klase barruan programazioarekin uztartzearen alde daude.

Kontuan izan behar da azken hauek kanpo-ekintzen garrantzia azpimarratzen dutela baina ez euren ardurapean eta euren partehartzea eskatu barik.

Gainera, ikasleek denon artean hitz egin beharra azpimarratzen duten bitartean, irakasleak arauak ezartzearen aldekoak dira.

## 5. IKASLEAREN INGURUNEA (SARE SOZIALA)

Faktore eragile hau inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Euskara erabiltzeko lagun talderik ez sortzea
- Klasetik kanpoko ekintza ez erakargarriak
- Euskal kultura ez ezagutzea

IRAKASLEEN KONPONBIDEAK	IKASLEEN KONPONBIDEAK
<p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b> Kanpo-ekintza egokiak sustatu</p>	<p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b> Klasekoen artean hitz egin mintza-taldea sortzen saiatzeko</p>
<p><b>Klasetik kanpoko ekintzak (ez dira oso beharrezkoak)</b> 1. Berezitasuna eta dinamismoa zaindu 2. Ikasleak parte hartzera bultzatu</p>	<p><b>Klasetik kanpoko ekintzak (ez dira oso beharrezkoak)</b> Nork bere burua behartu</p>
<p><b>Euskal kultura hobeto ezagutzea</b> Euskal kulturaren erreferentea Kurrikulumean txertatu eta presente mantendu klasean</p>	<p><b>Euskal kultura hobeto ezagutzea</b> 1. Euskal kulturari buruzko tailer eta ikastaroak antolatu eta txangoak egin euskal giroan 2. Euskal kulturari buruz irakurri eta dokumentalak ikusi 3. Euskal Herrian zehar bidaiatu</p>

Irakasleek zein ikasleek aipatzen dute klasetik kanpoko ekintzetan parte hartzera bultzatu behar dela. Lehenengoan ustetan, eurena da ikasleak bultzatzearen ardura, bigarrenengoetan, nork bere burua behartu behar du.

Berriro ere esan behar da ikasleek harremanak batez ere klasetik kanpo landu behar direla uste dutela; irakasleak, aldiz, klase barruan programazioarekin uzatzearen alde daude.

Baieztape hau gure kulturaren ezagutzeko moduan ere islatzen da: irakasleen ustez, klaseratu behar da, ikasleek, ostera, klasetik kanpo landu behar dela uste dute.

## 6. IKAS-PROZESUA LUZEA IZATEA

Faktore eragile hau inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Epea alde zuzenetik pentsatutakoa baino luzeagoa
- Emaizariak (agiriak) ez lortzea

IRAKASLEEN KONPONBIDEAK	IKASLEEN KONPONBIDEAK
<p><b>Ikas-prozesua arindu eta optimizatu</b> Euskaraz ahalik eta gehien entzun, irakurri, idatzi eta mintzatu (klasetik kanpo ere)</p> <p><b>Emaizariak (lortutako maila, agiria)</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Irakasleek parte hartze handiago eduki azken emaitzetan</li> <li>2. Mailaren araberrako azterketa egokiak planteatu</li> </ol>	<p><b>Ikas-prozesua arindu eta optimizatu</b> Euskaraz ahalik eta gehien entzun, irakurri, idatzi eta mintzatu (klasetik kanpo ere)</p> <p><b>Emaizariak (lortutako maila, agiria)</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gehiago ikasi</li> <li>2. Azterketak prestatzeko ikastaroak, ikastaroetakoak ez baitu balio</li> <li>3. Akatsak zuzendu</li> <li>4. Azterketak aldatu, ez baitira baliagarriak</li> </ol> <p><b>Langileak liberatu euskaraz ikasteko eta ikastaroak Eusko Jaurlaritzak ordaindu</b></p>

Bai irakasleek bai ikasleek denbora ahalik eta gehien euskaraz bizitzen eman beharra adierazten dute, ikas-prozesua optimizatze aldera.

Eta ideia honekin lotuta, euskara ikasteko erraztasun gehiago emateko eskaria dago (liberazioak, doaneko ikastaroak,...).

Biek gaurko azterketa-ereduei ezegoki irizten diete, eta moldatu beharko liratekeela pentsatzen dute. Horrekin batera, irakasleek ikasleak ebaluatzerakoan euren papera indartzearen alde daude, ebaluazio jarraituarekin bat eginez.

## 7. ASTI FALTA

Faktore eragile hau inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Denbora luzea behar izatea ikas-prozesu osoa burutzeko
- Euskaraz komunikatzeko behar eza

IRAKASLEEN KONPONBIDEAK	IKASLEEN KONPONBIDEAK
<p><b>Ikas-prozesua arindu eta optimizatu</b>  Euskaraz ahalik eta gehien entzun, irakurri, idatzi eta mintzatu (klasetik kanpo ere)</p> <p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b>  Kanpo-ekintza egokiak sustatu</p> <p><b>Euskal kultura hobeto ezagutzea</b>  Euskal kulturaren erreferentia  Kurrikulumean txertatu eta presente mantendu klasean</p>	<p><b>Ikas-prozesua arindu eta optimizatu</b>  Euskaraz ahalik eta gehien entzun, irakurri, idatzi eta mintzatu (klasetik kanpo ere)</p> <p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b>  Klasekoen artean hitz egin mintzaltaldea sortzen saiatzeko</p> <p><b>Langileak liberatu euskaraz ikasteko eta ikastaroak Eusko Jaurlaritzak ordaindu</b></p>

Bai irakasleek bai ikasleek denbora ahalik eta gehien euskaraz bizitzen eman beharra adierazten dute, ikas-prozesua optimizatze aldera.

Eta ideia honekin lotuta, euskara ikasteko erraztasun gehiago emateko eskaria dago (liberazioak, doaneko ikastaroak,...).

Irakasleen ustez, gure kultura klaseratu behar da, eta kanpo-ekintza erakargarri eta berezituak eskaini (beste inoren ardurapean). Ikasleen iritzirako, hau aukera izan daiteke euskaraz aritzeko taldea sortzeko.



## 8. KOMUNIKATZEKO EUSKARAREN BEHAR EZA

Faktore eragile hau inkestetan definitutako honako arazok sortzen dute:

- Erdal ingurunean bizitzea
- Euskal kultura ez ezagutzea
- Euskara erabiltzeko lagun talderik ez sortzea

IRAKASLEEN KONPONBIDEAK	IKASLEEN KONPONBIDEAK
<p><b>Aukera guztiez baliatu euskara praktikatzeko</b> (euskal liburu-irradi-TB, euskaldunekin mintzatu,...)</p> <p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b> Kanpo-ekintza egokiak sustatu</p> <p><b>Euskal kultura hobeto ezagutzea</b> Euskal kulturaren erreferentea Kurrikulumean txertatu eta presente mantendu klasean</p>	<p><b>Aukera guztiez baliatu euskara praktikatzeko</b> (euskal liburu-irradi-TB, euskaldunekin mintzatu,...)</p> <p><b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b> Klasekoen artean hitz egin mintzataldea sortzen saiatzeko</p> <p><b>Euskal kultura hobeto ezagutzea</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskal kulturari buruzko tailer eta ikastaroak antolatu eta txangoak egin euskal giroan</li> <li>2. Euskal kulturari buruz irakurri eta dokumentalak ikusi</li> <li>3. Euskal Herrian zehar bidaiatu</li> </ol>

Bai irakasleek bai ikasleek aukera guztiez baliatu behar dute euskara erabiltzeko, ikas-prozesua optimizatze aldera.

Esan beharra dago ikasleek harremanak batez ere klasetik kanpo landu behar direla uste dutela; irakasleek, hala ere, euren ardurapean klase barruan landutakoa baino ez dute ikusten. Klasetik kanpoko ekintzen beharra aipatu ere aipatzen dute, baina inola ere euren partehartzea.

Baieztape hau gure kulturaren ezagutzeko moduan ere islatzen da: irakasleen ustez, klaseratu behar da, ikasleek, ostera, klasetik kanpo landu behar dela uste dute.

## ONDORIOAK

### IKAS-PROZESUA: EDUKIAK IRAKASTEKO/IKASTEKO/EBALUATZEKO METODOLOGIA

Bai irakasleek bai ikasleek ikastaroa hasi aurreko **mailaketa-frogen** beharra ikusten dute.

Ikasleek talde bereko ikasleek maila desberdinak badituzte, taldeak banatu behar direla uste dute. Irakasleen artean iritzi desberdinak daude: batzuek ikasleekin bat egiten dute, besteek taldeak mantendu eta gehienek beharretara egokitu beharra azaltzen dute.

Horrez gain, ikasleen ustetan, talde txikiagoak eta irakasle gehiago beharko lirateke.

**Metodologiari** dagokionez, ikasleek gramatika azalpen gehiago eta hobeak eskatzen dituzten bitartean (testu-liburuez lagunduta), irakasleak metodologia orekatuaren aldekoak dira. Gainera, ikasleek ikasteko metodo berrien sustapena nabarmentzen dute.

Talde biek gaurko **azterketa-ereduei** ezegoki irizten diete. Irakasleek gaineratzen dute ikasleak ebaluatzerakoan euren papera indartu beharko litzatekeela.

Ikasleek **euskara ikasteko erraztasun** gehiago emateko eskatzen dute: langileak denbora luzeagoz liberatu, doaneko ikastaroak, ikastaro laburragoak, modulazio desberdinak (3 edo 4 ordu astean, lan-beharrei egokitutako talde berezituak,...),...

### HARREMANAK: AZPIPROZESU PSIKOSOZIALAK, N. Arratibel

Ikasle gehienek uste dute **irakasleak** bere lana egiteko motibatuta egon behar duela, komunikaziorako gaitasuna izateaz gain. Konfiantza sortzen saiatu behar du giro ona egon dadin.

Irakasleen iritziak, berriz, irakasleak ikasleekin harreman ona edukitzean saiatu behar du, baina gehiegi inplikatu barik, batez ere ikas-prozesuaz arduratu behar baitu.

Biek azaltzen dute **ikastaro** bidezko irakasle prestatuen beharra, baina irakasleek gaineratzen dute ikasteko liberazioak beharko litzaketela.

Esan beharra dago ikasleek **harremanak** batez ere klasetik kanpo landu behar direla uste dutela; irakasleek, hala ere, euren ardurapean klase barruan landutakoa baino ez dute ikusten. Klasetik kanpoko ekintzen beharra aipatu ere aipatzen dute, baina inola ere euren partehartzea.

Talde biek elkar ezagutzeko **talde dinamikak** aipatzen dituzte.

## INGURUNEA: GIZARTE PROZESUAK, I. Martinez de Luna

Irakasleek zein ikasleek nabarmentzen dute **denbora** ahalik eta gehien euskaraz bizitzen eman beharra.

Klasetik **kanpoko ekintzetan** ikasleek nor bere burua parte hartzera bultzatu behar duela uste dute. Irakasleek ikasleak bultzatzeko ardura euren dela uste dute.

Ikasleek gure **kultura** klasetik kanpo lantzea nahiago dute; irakasleek, berriz, klaseratu beharra dakusate.

Bestalde, ikasleek euskaraz aritu ahal izateko **lagun taldea** (nolabaiteko mikrotalde soziala) eduki nahi lukete.

Laburbilduz:

### DESBERDINTASUNAK

Metodologia, ikasle-irakasle eta ikasle-ikasle harremanak, irakaslearen paperari dagozkion hainbat ezaugarri, kanpo ekintzetan parte hartzeko beharra eta euskal ingurune berriak sortzeko bideak (izaera, euskara irakasteko motibazioak) kontuan hartzen baditugu, talde bien motibazioaren eusleak desberdinak dira.

### BERDINTASUNAK

Ikastaroa hasi aurreko antolakuntza, ebaluatzeko modua, elkar ezagutzeko talde dinamikak, klasetik kanpoko ekintzen beharra eta euskararen murgiltzea kontuan hartzen baditugu, talde bien motibazioaren eusleak berdinak dira.

Beraz, **ondorio gisa**, zera esan genezake:

**Motibazio eza sortzen duten arazoei aurre egiterako, irakasleek eta ikasleek planteatutako konponbide gehienek ez dute bat egiten.**

## 6. AZKEN GOGOETAK

Kontuan hartuta irakasleek ikasle prototipoez egindako irudia:

- euskararen ezagutza txikia dute,
- sare sozial hurbileko ezagutza txikia da,
- euskararen erabilera eskasa dute baina sare sozial hurbilean erabilera ertaina ematen da,
- helburu nagusia eta ikastaroan gehien baloratzen dutena egiaztagiriren bat lortzea da
- lanerako motibazio instrumentalak gidatuta ikasten dute euskara
- eta ez daukate euskal kultura eta gizartean integratzeko asmorik,

*hipotesi praktikoetako a) hipotesia betetzen da eta b) erdizka baino ez da betetzen*, bai lanerako motibazio instrumentala bai motibazio integratzailea erakusten baitute ikasleek.

Kontuan hartuta irakasleek arazoei emandako konponbideak (*Motibazioaren balizko eusleak*):

- mailaketa frogen beharra,
- metodologia orekatua,
- azterketa-ereduak aldatu beharra eta euren parte hartzea indartu ebaluazioan,
- irakasle-ikasle harremanetan irakasle rola ez galtzea eta gehiegi ez inplikatzera,
- ikasle-ikasle harremanak klase barruan lantzea,
- irakasleek ikastaroak egiteko liberazioak,
- kanpo ekintzetan parte hartzea bultzatu baina eurek parte hartu barik
- eta euskal kultura klase barruan kurrikulumean txertatuta lantzea.

*Hipotesi praktikoetako c) eta d) hipotesiak betetzen dira*: hein handi batean, irakasleek ikasleek dituzten aurreiritzietan oinarritzen dira ikas-prozesuari ekiteko, irakasleen lana batez ere klase barruko lana betetzera mugatzen da eta azterketei begirako metodologia da jarraitu beharrekoa.

**e) hipotesiari dagokionez**, argi geratu da 5.3 puntuko c) alderaketan **betetzen dela**: motibazioaren balizko eusleek (irakasleen konponbideek) eta motibazioaren benetako eusleek (ikasleen konponbideek) askotan ez dute bat egiten.

Beraz, irakasleek gehienetan ez dituzte ikasleen iritziak kontuan hartzen euren motibazio ezari aurre egiteko.

Eta ondorioz, **f) hipotesia ere betetzen da:** ikasleen motibazio arazoei behar bezala aurre egin ezean, gero eta ikasle desmotibatuagoak ditugu.

Azken gogoeta gisa, zera esan genezake:

Harremanei garrantzi handiagoa eman beharko litzaieke, bai ikasle-ikasle baita ikasle-irakasle harremanari, bai klase barruan baita klasetik kanpo ere.

Eta horrekin batera, ikasleen beharrak detektatzeko edota detektatu ezean zuzenean eurei galdetzeko teknikak erabili beharko lituzkete irakasleek (edozein arazo konpontzeko metodo gisa).

Horrez gain, kontuan izan beharra dago Martinez de Lunak **Gizarte prozesuaz** eta honen garrantziaz dioena: gizarte prozesuak berarekin batera ekarriko lituzkeen zenbait aldaketa (euskarazko harremanak ez lirateke erdarazko berberak ez berdinak izango, adibidez) gertatu ezean, *baliteke ikas prozesua gizabanakoa zinez euskalduntzeko nahikoa ez izatea*.

Baita Arratibelek ikasleengan ematen diren **azpiprozesu psikosozialen** eraginez aipatutakoa: sare sozialak eta aldagai psikosozialek subjektuaren euskararen jabekuntzan eragingo dute.

Eta irakasleak dira ikasleek euskal ingurunearekiko duten kontaktu eta erreferenterik hurbilena (kasu askotan lehena), beraz, ikasleen eta euskal ingurune soziokulturalaren arteko zubi-lana egitea legokieke.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- HIZNET 02-03ko ikasgaiak eta materiala:
  - ▶ MARTINEZ, Z., JAUSORO, N., BERRIO-OTXOA, K. eta ALTUNA, O. *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak*. (4. irakasgaia)
  - ▶ BERRIO-OTXOA, K. *Gizarte sareen metodologia*. (5. irakasgaia)
  - ▶ CRESPO, A eta AGIRRE, A. *Hizkuntza Normalkuntzarako Plangintza Orokorra*. (20. ikasgaia)
  - ▶ ARRATIBEL, N. *Gizarte psikologia. Motibazioak, hizkuntza jarrerak*. (6. ikasgaia)
  - ▶ ARRATIBEL, N. *Motibazioa plangintzan*. (17. ikasgaia)
  - ▶ ESCANDON, A. *Helduen euskalduntze-alfabetatzea eraginkorragoa izateko proposamenak*, Hiznet 01-02ko sakontze egitasmoa, 2002
- AMONARRIZ, K. (1996) *Helduen euskalduntzea: Eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak*, in BAT, 19. et 20. zk., Andoain
- AMORRORTU, E. (2001) *Elkartasuna eta estatusa Hizkuntza jarreretan: euskararen erabilera aurreikusten*, in BAT, 40. zk, Andoain,
- AMORRORTU, E. (2003) *Hizkuntza jarreraren eragina euskararen erabileran*, Soziolinguistika Aplikatuan Ikastaroa, SEI, Tolosa
- ARRATIBEL, N. (1999) *Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren errola*, EHU,
- ARRATIBEL, N., AZURMENDI, M.J., GARCIA, I. (2001) *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*, UEU,
- ATKINSON eta CLAXTON, (2002) *El profesor intuitivo*, Octaedro,
- AZURMENDI, J. (1993ko uztaila) *Hizkuntza eta talde-nortasuna. Donostiako Udako XII. ikastaroak*,

- BERRIA egunkaria, (2003ko uztaila)
- BOURHIS, R.Y. eta SACHDEV, I. (1985) *Hizkuntza eta identifikazio soziala*, EHU
- BURÓN, J. (1997) *Motivación y aprendizaje*, Mensajero,
- CHRISTIE, R eta GEIS, F., (1970) *Studies in Machiavellianism*, Academic Press,. New York
- EUSKO JAURLARITZA. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza:
  - ▶ *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, 1999
  - ▶ *Euskararen Jarraipena*, 1995
  - ▶ *Euskararen Jarraipena II*, 1997
  - ▶ *Euskararen Jarraipena III*, 2001
- GARCIA FERNANDEZ, I. (2001) *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolinguistikokoaren garrantzia*. Doktorego tesia. UPV/EHU,
- GARDNER, R.C. eta. LAMBERT, W.E., (1972) *Attitudes and Motivation in Second Language Learning*. Rowley, Mass.: Newbury House.
- INTXAUSTI, J. (1998) *Euskararen aldeko motibazioak*, Donostiako Udako XIII. Ikastaroak, UPV-EHU,
- JAUREGI, P. (1998) *Nola eutsi motibazioari*, Hezkuntzen Teoria Saila, ikasgaia,
- LEGARRETA, P.M, “Albaro” (1977) *Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz eta geroaz*, in JAKIN, 4. zk., Tolosa
- MARTINEZ DE LUNA, I. eta JAUSORO, N. *Euskararekiko motibazio sinbolikoak*
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M. (1991) *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia,
- SANCHEZ, G. (2002) *Etsipena eta ikasteko ezintasuna*, UEUko Helduen Euskalduntzearen V. Jardunaldiak,
- ZALBIDE, M. (2003) *Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?*, [www.erabili.com](http://www.erabili.com), Azpeitiko Euskara Patronatua,

## **7. ERANSKINAK**

### **GALDESORTAK**



## IKASLEENTZAKO GALDESORTA

### • EUSKARAREN EZAGUTZA:

- ✓ Zein da gaur egungo zure euskararen ezagutza?

	EZER EZ	ESKASA	HANDIA
Ulermena			
Mintzamena			
Irakurmena			
Idazmena			

- ✓ FAMILIA/LAGUNARTEA/LAN-GIROA: Zein da euren euskararen ezagutza?

	EZER EZ	ESKASA	HANDIA	EZ DAGOKIO
aita				
ama				
neba-arreba zaharrago				
neba-arreba gazteago				
bikotea				
seme-alabak				
lagunartea				
lan-giroa				

### • EUSKARAREN ERABILERA:

- ✓ Zein da gaur egungo zure euskararen erabilera?

	EZER EZ	ESKASA	HANDIA
Ulermena			
Mintzamena			
Irakurmena			
Idazmena			

- ✓ FAMILIA/ LAGUNARTEA/LAN-GIROA: Zein da euren euskararen erabilera?

	EZER EZ	ESKASA	HANDIA	EZ DAGOKIO
aita				
ama				
neba-arreba zaharrago				
neba-arreba gazteago				
bikotea				
seme-alabak				
lagunartea				
lan-giroa				

- **HELBURUAK:**

✓ Zure gaur egungo euskara mailari dagokionez, zein da/dira zure helburu nagusia/ak?

1. Hitz egiten hobeto ikastea.
2. Idazten hobeto ikastea.
3. EGA edota antzeko egiaztagiriren bat lortzea.
4. Nire kultura orokorra euskararen bidez aberastea.
5. Euskararen ezagutzan sakontzea.

✓ Zure ustez, zein epetan lor dezakezu helburu hori?

1. Urtebete baino gutxiago
2. 1-2 urte
3. 3-4 urte
4. 5 urte baino gehiago
5. Inoiz ez

- **MOTIBAZIOAK:**

✓ Hainbat euskara ikasleen euskara ikasteko motibazioak irakurri, ez dago ez hoherik ez txarragorik. Aukeratu zure egoerara gehien hurbiltzen dena:

1. Euskara batez ere lana lortzeko edota lanean hobetzeko ikasten dut, oso erabilgarria iruditzen baitzait. Horrela ez balitz, ez nuke ikasiko.
2. Euskara lana lortzeko erabilgarri izan daiteke, horrez gain ondo iruditzen zait hemen gaztelaniaz gain euskara ere erabiltzea. Lanean ez balitz erabilgarria izango, seguruenik desanimatuko nintzateke.
3. Bi arrazoi motengatik ari naiz euskara ikasten eta biek pisu bera daukate: batetik, lanerako erabilgarria izan daiteke, bestetik nire ustez hemen euskara jakitea garrantzitsua da.
4. Batetik, euskara Euskal Herriko hizkuntza da, beraz, hau ezagutzuz hemengo kultura hobeto uler dezaket. Bestetik, lanerako interesgarri izan daiteke jakitea. Nigan pisu handiagoa du lehenengo arrazoiak.
5. Euskara Euskal Herriko hizkuntza da eta ni bertan bizi naiz, horregatik ari naiz ikasten. Berreuskalduntzearekin guztiz bat nator eta ondo iruditzen zait lanean euskara jakitea baloratua eta eskatua izatea.

• **IKAS-PROZESUAREN ARAZOAK:**

✓ Euskara ikasteko zenbateko garrantzia dute zuretzat ondoko ekintzek?

	EZER EZ	GUTXI	NAHIKO	ASKO
Inguruko euskaldunekin euskaraz aritzea				
Egunkaria, liburuak,... irakurtzea				
Laneko jarduerak euskaraz egitea				
Kaleko kartelak edo propaganda irakurtzea				
Irratia edo telebista entzutea				
Euskarazko jardunetan parte hartzea				

✓ Zer da ikastaroan gehien baloratzen duzuna?

	Batere garrantzirik	Garrantzi gutxi	Garrantzi nahikoa	Garrantzi handia
Ikasle guztiok maila berean egotea				
Klaseko giroa				
Metodologia: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gramatika azalpen gehiago</li> <li>• Entzu/Mintza/Gram orekatua</li> <li>• Entzu/Mintza ariketa gehiago</li> </ul>				
Material didaktikoa				
Etixerako lanak edukitzea				
Ordutegia betetzea (puntualtasuna)				
Irakaslearen gaitasuna				
Irakaslearekiko harremana				
Ikaskideekiko harremana				
Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko				
Dinamismoa				
Denbora ondo erabiltzea				
Klasetik kanpoko ekintzak				
Euskal kultura hobeto ezagutzea				
Emaitzak (lortutako maila, agiria)				

• **ARAZOEN KONPONBIDEAK:**

- ✓ Zure euskara ikas-prozesuan oro har zelako arazoak eduki dituzu ?  
Nola konpondu ziren?
- ✓ Nahiz eta horrelako arazorik ez eduki inoiz, edukiz gero zuk nolako konponbidea emango zenieke? Noren ardura izango litzateke konponbidea martxan jartzea?

	EMANDAKO KONPONBIDEA	NIRE KONPONBIDEA	ARDURA
Ikasle guztiok maila berean egotea			
Klaseko giroa			
Metodologia: Gramatika azalpen gehiago			
Entzu/Mintza/Gram orekatua			
Entzu/Mintza ariketa gehiago			
Material didaktikoa			
Etxerako lanak edukitzea			
Ordutegia betetzea (puntueltasuna)			

Irakaslearen gaitasuna			
Irakaslearekiko harremana			
Ikaskideekiko harremana			
Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko			
Dinamismoa			
Denbora ondo erabiltzea			
Klasetik kanpoko ekintzak			
Euskal kultura hobeto ezagutzea			
Emaitzak (lortutako maila, agiria)			

• **DATU PERTSONALAK:**

- ✓ Adina:                      Sexua: E / G                      Jaioterria:                      Bizilekua:
- ✓ Bukatutako ikasketak:  
Ikasketak ze hizkuntzatan egin dituzu?
- ✓ Lanean al zaude?  
Baiezkoan: Zertan egiten duzu lan?  
Ezezkoan: Zertan lan egin nahi zenuke?

## IRAKASLEENTZAKO GALDESORTA

Defini ezazu orain daukazu **ikasle prototipoa**:

- Adina:      Sexua: E/G      Jaioterria:      Bizilekua:
- Bukatutako ikasketak:
- Lanean / Langabetua

Zehaztu duzun ikasle horri buruzko galderak erantzun beharko dituzu. betiere zure irakasle eskarmentuak emandako esperientzian oinarrituta (*Hau da, zure ustez ikasle prototipoak erantzungo lukeena erantzun behar duzu*).

- **EUSKARAREN EZAGUTZA:**

- ✓ Zein da gaur egungo ikasle prototipoaren euskararen ezagutza?

	EZER EZ	ESKASA	HANDIA
Ulermena			
Mintzamena			
Irakurmena			
Idazmena			

- ✓ BERE FAMILIA/LAGUNARTEA/LAN-GIROA: Zein da euskararen ezagutza?

	EZER EZ	ESKASA	HANDIA	EZ DAGOKIO
aita				
ama				
neba-arreba zaharrago				
neba-arreba gazteago				
bikotea				
seme-alabak				
lagunartea				
lan-giroa				

- **EUSKARAREN ERABILERA:**

- ✓ Zein da gaur egungo ikasle prototipoaren euskararen erabilera?

	EZER EZ	ESKASA	HANDIA
Ulermena			
Mintzamena			
Irakurmena			
Idazmena			

✓ BERE FAMILIA/LAGUNARTEA/LAN-GIROA: Zein da euskararen erabilera?

	EZER EZ	ESKASA	HANDIA	EZ DAGOKIO
aita				
ama				
neba-arreba zaharrago				
neba-arreba gazteago				
bikotea				
seme-alabak				
lagunartea				
lan-giroa				

• **HELBURUAK:**

✓ Zein da/dira ikasle prototipoaren helburu nagusia/ak?

1. Hitz egiten hobeto ikastea.
2. Idazten hobeto ikastea.
3. EGA edota antzeko egiaztagiriren bat lortzea.
4. Bere kultura orokorra euskararen bidez aberastea.
5. Euskararen ezagutzan sakontzea.

✓ Bere ustez, ikasle prototipoak zein epetan lor dezake helburu hori?

- |                            |                         |
|----------------------------|-------------------------|
| 1. Urtebete baino gutxiago | 4. 5 urte baino gehiago |
| 2. 1-2 urte                | 5. Inoiz ez             |
| 3. 3-4 urte                |                         |

• **MOTIBAZIOAK:**

✓ Hainbat euskara ikasleen euskara ikasteko motibazioak irakurri. Aukeratu ikasle prototipoaren egoerara gehien hurbiltzen dena:

1. Euskara batez ere lana lortzeko edota lanean hobetzeko ikasten du, oso erabilgarria iruditzen baitzaio. Horrela ez balitz, ez luke ikasiko.
2. Euskara lana lortzeko erabilgarri izan daiteke, horrez gain ondo iruditzen zaio hemen gaztelaniaz gain euskara ere erabiltzea. Lanean ez balitz erabilgarria izango, seguruenik desanimatuko litzateke.
3. Bi arrazoi motengatik ari da euskara ikasten eta biek pisu bera daukate: batetik, lanerako erabilgarria izan daiteke, bestetik bere ustez hemen euskara jakitea garrantzitsua da.
4. Batetik, euskara Euskal Herriko hizkuntza da, beraz, hau ezagutzuz hemengo kultura hobeto uler dezake. Bestetik, lanerako interesgarri izan daiteke jakitea. Beragan pisu handiagoa du lehenengo arrazoiak.
5. Euskara Euskal Herriko hizkuntza da eta bera bertan bizi da, horregatik ari da ikasten. Berreuskalduntzearekin guztiz bat dator eta ondo iruditzen zaio lanean euskara jakitea baloratua eta eskatua izatea.

• **IKAS-PROZESUAREN ARAZOAK:**

- ✓ Euskara ikasteko zenbateko garrantzia dute ikasle prototipoarentzat ondoko ekintzek?

	EZER EZ	GUTXI	NAHIKO	ASKO
Inguruko euskaldunekin euskaraz aritzea				
Egunkaria, liburuak,... irakurtzea				
Laneko jarduerak euskaraz egitea				
Kaleko kartelak edo propaganda irakurtzea				
Irratia edo telebista entzutea				
Euskarazko jardunetan parte hartzea				

- ✓ Ikasle prototipoak zer da ikastaroan gehien baloratzen duena?

	Batere garrantzirik	Garrantzi gutxi	Garrantzi nahikoa	Garrantzi handia
Ikasle guztiok maila berean egotea				
Klaseko giroa				
Metodologia: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gramatika azalpen gehiago</li> <li>• Entzu/Mintza/Gram orekatua</li> <li>• Entzu/Mintza ariketa gehiago</li> </ul>				
Material didaktikoa				
Etterako lanak edukitzea				
Ordutegia betetzea (puntueltasuna)				
Irakaslearen gaitasuna				
Irakaslearekiko harremana				
Ikaskideekiko harremana				
Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko				
Dinamismoa				
Denbora ondo erabiltzea				
Klasetik kanpoko ekintzak				
Euskal kultura hobeto ezagutzea				
Emaizak (lortutako maila, agiria)				



• **ARAZOEN KONPONBIDEAK:**

Orain alde batera utziko dugu ikasle prototipoa, eta zure irakasle eskarmentuan oinarrituta, erantzun hurrengo galderak:

- ✓ Euskara irakaskuntzan oro har zelako arazoak eduki dituzu ?  
Nola konpondu dituzu?
- ✓ Nahiz eta horrelako arazoak inoiz eduki ez, edukiz gero nolako balizko konponbidea emango zenieke? Noren ardura izango litzateke konponbidea abian jartzea?

	EMANDAKO KONPONBIDEA	BALIZKO KONPONBIDEA	ARDURA
Ikasle guztiok maila berean egotea			
Klaseko giroa			
Metodologia: Gramatika azalpen gehiago			
Entzu/Mintza/Gra m orekatua			
Entzu/Mintza ariketa gehiago			
Material didaktikoa			
Etxerako lanak edukitzea			
Ordutegia betetzea (puntueltasuna)			

Norberaren gaitasuna			
Ikasleekiko harremana			
Ikaskideen arteko harremana			
Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko			
Dinamismoa			
Denbora ondo erabiltzea			
Klasetik kanpoko ekintzak			
Euskal kultura hobeto ezagutzea			
Emaitzak (lortutako maila, agiria)			

• **DATU PERTSONALAK:**

- ✓ Adina:                      Sexua: E / G                      Jaioterria:                      Bizilekua:
- ✓ Bukatutako ikasketak:  
Ikasketak ze hizkuntzatan egin dituzu?

**Emaitzetan oinarritutako konponbideen taulak:  
motibazioaren balizko eta benetako eusleak**

**IRAKASLEEN KONPONBIDEAK (eta ardurak nori egokitu)  
MOTIBAZIOAREN BALIZKO EUSLEAK**

<b>Ikasle guztiok maila berean egotea</b> <ol style="list-style-type: none"><li>5. Mailaketa froga (zuzendari, didaktikari eta irakasleak)</li><li>6. Helburuak argi edukita, mailaz aldatu (didaktikari)</li><li>7. Taldea banatu, ikasleak birkokatuz (irakaslea)</li><li>8. Taldea mantendu eta moldatu gehienek behar dutenera (irakaslea)</li></ol>
<b>Klaseko giroa</b> <ol style="list-style-type: none"><li>5. Talde dinamikak eta elkar ezagutzeko jokoak egin (irakaslea)</li><li>6. Irakasleentzako distantziak markatu behar (ikasleak)</li><li>7. Irakasleak prestatu horretarako (irakaslea)</li><li>8. Arau zehatzak ezarri klasean (ikasleak)</li></ol>
<b>Metodologia</b> <ol style="list-style-type: none"><li>4. Mintza/Entzu/Irak/Gramatika oreka mantendu ( didaktikari eta irakaslea)</li><li>5. Irakasleentzako ikastaroak (zuzendaria)</li><li>6. Irakasleentzako erantzun (ikasle eta irakaslea)</li></ol>
<b>Material didaktikoa</b> <ol style="list-style-type: none"><li>3. Materiala mailaka ordenatu eta egoera naturaletara egokitu (didaktikari eta irakaslea)</li><li>4. Langileak liberatu materiala sortu eta berritzeko (administrazioa, zuzendaria)</li></ol>
<b>Ordutegia betetzea (puntualtasuna)</b> <ol style="list-style-type: none"><li>3. Zorrotzak izan: hurrengo ordura arte itxaronarazi (irakaslea)</li><li>4. Irakasleentzako ulertarazi (ikasle eta irakasle)</li></ol>
<b>Irakaslearen gaitasuna</b> <ol style="list-style-type: none"><li>4. Nor bere kabuz ikasten saiatu (irakaslea)</li><li>5. Ikastaroak egin (zuzendaria)</li><li>6. Ikas-prozesua optimizatu (irakaslea)</li></ol>
<b>Ikasleekin harremana</b> <ol style="list-style-type: none"><li>3. Errespetuan oinarritutako harreman ona mantendu, irakasle rola ahaztu gabe (ikasle eta irakaslea)</li><li>4. Ekintza gehiago ikasleekin (ikasle eta irakasle)</li></ol>
<b>Irakasleentzako harremana</b> <p>Irakasleak dinamizatu eta bultzatu behar du, programazioan sartuz (ikasle eta irakasle)</p>
<b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b> <p>Kanpo-ekintza egokiak sustatu (zuzendari eta irakaslea)</p>
<b>Dinamismoa</b> <ol style="list-style-type: none"><li>4. Monotoniarik gabeko ariketa dinamikoak planteatu eta animatu (didaktikari eta irakaslea)</li><li>5. Irakasleentzako ikastaroak (zuzendaria)</li><li>6. Klaseko erritmo ezberdinek elkar ez zapaltzen saiatu (irakaslea)</li></ol>
<b>Denbora ondo erabiltzea</b> <p>Programazio ona eta orekatua egin (didaktikari eta irakaslea)</p>
<b>Klasetik kanpoko ekintzak (ez dira oso beharrezkoak)</b> <ol style="list-style-type: none"><li>3. Berezitasuna eta dinamismoa zaindu (zentroa eta irakaslea)</li><li>4. Irakasleak parte hartzera bultzatu (zentroa eta irakaslea)</li></ol>
<b>Euskal kultura hobeto ezagutzeko</b> <ol style="list-style-type: none"><li>3. Kurrikulumean txertatu eta klaseratu (EJ, zentroa eta irakaslea)</li><li>4. Euskal kulturaren erreferentzia presente mantendu klasean (didaktikari eta irakaslea)</li></ol>
<b>Emaitzak (lortutako maila, agiria)</b> <ol style="list-style-type: none"><li>3. Irakasleentzako parte hartze handiago eduki azken emaitzetan (administrazioa)</li><li>4. Mailaren arabera azterketa egokiak planteatu (administrazioa)</li></ol>

**IKASLEEN KONPONBIDEAK (eta ardurak nori egokitu)  
MOTIBAZIOAREN BENETAKO EUSLEAK**

<b>Ikasle guztiak maila berean egotea</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Ikastaroa hasi baino lehen, frogak egin (zentroa, irakaslea eta zuzendaria)</li><li>2. Ikastaroa hasita, maila desberdineko ikasleak klasez aldatu (irakaslea)</li><li>3. Talde txikiagoak eta irakasle gehiago (zentroa eta administrazioa)</li></ol>
<b>Klaseko giroa</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Denon artean hitz egin eta kausak aztertu (zuzendari, ikasle eta irakasleak)</li><li>2. Irakasleak motibazio eta dinamismo handiago eduki behar (irakasleak)</li><li>3. Ikasleak moldagarriagoak izan eta ekintza gehiago elkarrekin (ikasleak)</li></ol>
<b>Metodologia</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Testu-liburua eduki, gramatika azalpen eta ariketekin. Azalpen gehiago, astiroago eta ordenatuago</li><li>2. Irakasle trebatuak: metodologia eta pedagogia ikastaroak egin</li><li>3. Oreka irakaslearen metodologia eta ikasleen eskaeren artean</li><li>4. Euskal giroa sortu</li></ol>
<b>Material didaktikoa</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Testu-liburu eguneratua eta modernoa (zentroa, administrazioa eta irakaslea)</li><li>2. Metodo berriak (interaktiboak: ordenagailua, internet) bultzatu (zentroa eta administrazioa)</li></ol>
<b>Etxerako lanak edukitzea (ez da arazoa, baina gomendagarria bai)</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Irakasleari eskatu (ikasleak)</li><li>2. Irakasleak betearazi (irakaslea eta ikasleak)</li></ol>
<b>Ordutegia betetzea (puntualtasuna)</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. 5 min eman hasteko inor itxaron barik (irakaslea)</li><li>2. Ekintzarik onenak lehenengo orduan egin (irakaslea)</li><li>3. Faltak ipini: X faltagatik, kanpora eta zuzendariarekin hitz egitera (zuzendaria eta irakaslea)</li><li>4. 10 min berandu helduz gero, kanpoan geratu behar (irakaslea)</li></ol>
<b>Irakaslearen gaitasuna</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Kexa jarri (zentroa eta zuzendaria)</li><li>2. Klasez aldatu eta bestela, euskaltegiz aldatu (zentroa eta ikaslea)</li><li>3. Irakasleak komunikatzeko gaitasuna eta motibazioa eduki eta bere lana maitatu (irakaslea)</li><li>4. Irakasleak trebatzeko ikastaroak egin, beste irakasleengandik ikasi,... (zentroa eta irakaslea)</li><li>5. Irakaslearekin hitz egin (irakaslea)</li></ol>
<b>Irakaslearekiko harremana</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Irakaslearekin hitz egin (ikasle eta irakaslea)</li><li>2. Ikasleek beldurra kendu eta konfiantzazko giroan zalantza guztiak galdetu (ikasleak)</li><li>3. Irakaslez aldatu (zentroa eta zuzendaria)</li><li>4. Paso egitea (ikasle eta irakaslea)</li></ol>
<b>Ikaskideekiko harremana</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Denon artean hitz egin</li><li>2. Kanpo-ekintzak antolatu (poteoak, afariak) harremanak sakontzeko (ikasle eta irakaslea)</li><li>3. Pazientzia eta umore ona eduki, ez onartu inork tratu berezia jasotzea (ikasle eta irakaslea)</li><li>4. Talde homogeneoak (zentroa)</li></ol>

<b>Lagun taldea sortzea euskara erabiltzeko</b> Klasekoen artean hitz egin mintza-taldea sortzen saiatzeko (ikasle eta irakaslea)
<b>Dinamismoa</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Joko eta ekintza dibertigarri gehiago, umore onean (irakaslea)</li><li>2. Irakasleak teknikak ikasi (zentroa eta irakaslea)</li><li>3. Teoria eta praktika orekatuago egon behar (irakaslea)</li></ol>
<b>Denbora ondo erabiltzea</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Denon artean hitz egin denbora hobeto aprobetxatzeko (ikasle eta irakaslea)</li><li>2. Irakasleak ondo programatu: ariketak egiteko denbora justua eman (irakaslea)</li><li>3. Ikasle gutxiago klasean (zentroa)</li></ol>
<b>Klasetik kanpoko ekintzak (ez dira oso beharrezkoak)</b> Nork bere burua behartu (ikasleak)
<b>Euskal kultura hobeto ezagutzea</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Euskal kulturari buruzko tailerrak antolatu eta txangoak egin euskal giroan (ikasle eta irakaslea)</li><li>2. Euskal kulturari buruz irakurri eta dokumentalak ikusi (ikasleak)</li><li>3. Euskal Herrian zehar bidaiatu (ikasleak)</li></ol>
<b>Emaitzak (lortutako maila, agiria)</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Gehiago ikasi (ikasleak)</li><li>2. Azterketak prestatzeko ikastaroak, ikastaroetakoak ez baitu balio (irakaslea)</li><li>3. Akatsak zuzendu (ikasle eta irakaslea)</li><li>4. Azterketak aldatu, ez baitira baliagarriak (administrazioa)</li></ol>